




Literatur lehiaketa haur eta
gazteentzat euskaraz



Certamen literario infantil y
juvenil en euskera





Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2004ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketa izan dira sarituak. Guztira 265 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

Presidentea

Alberto Ardanaz

Alaitz DBH Institutuko irakasleak

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak

Iñaki Andueza

Olaia Erbiti

Ika Sahats euskaltegiko irakasleak

Aitziber Garralda

Arrosa del Burgo

Aszen Argandoña

Izaskun Uriarte

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Julen Aranguena

Lourdes Garmendia

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2004. En total se presentaron 265 obras y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala / Ayuntamiento de Barañaín

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación

AZALAREN DISEINUA / DISEÑO DE PORTADA

Patricia Olo

IMPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ONA

L.G. / D.L.

NA. 1192/2005



Aurkezpena

Liburu honek, gure lingua navarrorum hizkuntzari eutsi eta biziberria ematearren, gure udalerrian egiten ari den lanaren erakustaldi garrantzitsu bat jasotzen du.

Joan den 2004. urteko haur eta gazteentzako euskarazko XV. Literatur Lehiaketan sarituak izan ziren lanak ekartzen dira orriotara. Lehiaketaren aurtengo edizioa, hamaseigarrena izanik, Barañaingo Udalak euskarazko literatur ekoizpena bultzatu eta sustatzeko duen borondate finkoaren adierazpen garbia bilakatu da; eta, urteko hizkuntza normalizazio planean aurreikusi diren helburuen gauzatzea dakar.

Belaunaldi berri bat hurbiltzen ari da, bizkor, hizkuntza honetan barna, literaturaren ateetara. Nire nahia da hala jarraitu, eraberritu eta fruituak eman ditzan; modu honetan gure herriaren kultur ondarea aberastuz.

Presentación

Este libro recoge una muestra importante del esfuerzo que en nuestro municipio se está realizando para recuperar y salvaguardar la presencia y la vida de nuestra lingua navarrorum.

Se trata de los trabajos premiados el pasado año 2004 en el XV Certamen de Literatura infantil y juvenil en euskera. El presente año el certamen alcanza ya su decimosexta edición y, por tanto, se constituye en muestra fehaciente de la firme voluntad que el Ayuntamiento de Barañaín tiene de promover la producción literaria en euskera, llevando a buen puerto los objetivos previstos en el plan de normalización lingüística anual.

Una nueva generación se asoma a las puertas de la creatividad literaria en esta lengua. Es mi deseo que continúe, se modernice y que fructifique, contribuyendo así al enriquecimiento cultural de nuestro pueblo.

Iz. / Fdo.

Mª ÁNGELES ARISTU BAIGORRI

**KULTURA ETA EUSKARA BATZORDEBURUA
PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE CULTURA Y EUSKERA**





Aztia eta ispilu magikoa

Ainara Albizu Vilas

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin herri txiki bat. Han jende gutxi bizi zen. Azti bat bizi zen ere; oso jatorra zen. Halako batean aztiak bere podere magikoekin gaua egin zuen. Orduan aztia lotara joan zen eta herria ere bai. Lotan zegoenean aztia, herriko jendea esnatu eta herritik joan ziren. Joan zirenean ispilu bat agertu zen eta bere barrura eraman zituen. Eguna egin eta aztia esnatu egin zen. Aztiak, esnatu zenean, esan zuen:

– Esnatu denak, eguna da eta – aztia esaten eta esaten ari zen, baina inor ez zen agertu.

Aztia larritu eta begiratzera joan zen. Begiratu zuenean ez zegoen inor eta horregatik herriko jendea bilatzera joan zen. Aztia deika eta deika ari zen baina ez zion inork erantzuten.

Ispilu bat agertu eta aztiak esan zuen:

– Ispilu honek zer egiten du hemen?

Ispilutik ahots batzuk entzun ziren eta aztiak esan zuen:

– Nor da? Zer izan da hori? Zer gertatzen da?

Ispilutik ahots bat entzun eta hau esaten zuen:

– Lagundu, aztia! Herriko jendea gara eta ispiluaren barruan gaude!

Aztiak esan zuen:

– Nola sartu zarete ispiluaren barrura?

Herriko jendeak esan zuen:

– Ispilu hau ikusi eta barrura sartu gaitu! Hemen oihan bat bezalakoa da eta animalia asko daude!

Lehoiak, tigreak, leopardoak, sugeak... Horrelako animaliak daude.

Aztiak esan zuen:

– Ez preokupatu; ni sartuko naiz eta salbatuko zaituztet.

Aztia bere podere magikoekin sartu, eta herriko jendea atera zuen. Baina, atera zituenean, lehoi bat sartu zen herrira. Aztiak lehoia ispiluan sartu eta beren etxeetara joan ziren denak.

Azkenean herriko jendea ez zen berriro herritik atera.

Untxi Miresgarria

Ane Lore Iriarte Cemboráin

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin, duela urte asko, bi mendien artean bizi zen familia aberats bat. Mutikoak Xabier zuen izena.

Egun batean aitak Londresen laneko bilera bat zuen. Eta amak lanera joan behar zuen. Xabier gaitxoak bakarrik geratu zen. Xabier oso aberatsa izan arren ez zegoen pozik ez zuelako lagunik. Gero pentsatu zuen basoan lagunak egitea. Basorantz abiatu zen. Basoan animalia asko zeuden; pixka bat aurrerago untxi polit bat zegoen eta untxiarekin jolasten hasi zen. Afal orduan untxia Xabierren etxera joan zen Xabierrekin jolasteko. Xabierrek afaltzen gonbidatu zuen. Afaltzeko makarroiak zeuden. Baina afaltzen hasi orduko neska eder batean bihurtu zen untxia. Azkenik, neska Xabierrekin bizi zen betirako.

Handik aurrera oso pozik bizi ziren.



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Kolorerik gabeko dragoia

Antziñe Argandoña López

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin dragoi bat, baina kolore gabekoa zen. Bere lagun batzuk, berde-berdeak zirenez, berari iseka egiten pasatzen zuten denbora.

Egun batean koadrila hartako bat kolorerik gabe gelditu zen eta esan zioten Dragik (kolorerik gabeko dragoia) eta bere lagunek:

– Ja, ja, ja! Orain zu zaude kolorerik gabe Dragiri iseka egiteagatik.

– Onak izan behar gara besteekin, bestela gauza txarrak gertatzen zaizkizu.

Urteak pasata Dragik alaba bat izan zuen, laranja-gorri kolorekoa. Oso polita zen eta Dori zuen izena.

Dragiren txikitako lagun gaiztoak ume bat izan zuen, beltz kolorekoa.

Dragi Dorirekin kalera ateratzen zenean, Dragiren lehengo lagunak alabekin joaten zen jolastera. Dori besteak baino politagoa zen.

Egun batean dragoi beltza etorri zen eta Doriri joka hasi zitzaion. Orduan Doriren lagunak dragoi beltza jo eta etxera itzuli zen dragoi beltza.

Handik aurrera dragoi beltzak ez zuen gehiago jo eta denak lagunak izan ziren.

Ane ileapaintzailea da

Patricia Lizaso Villar

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Bazen behin Ane izeneko neska bat. Beti bere amari orrazten zion asko gustatzen zitzaiolako orraztea. Anek bakarrik 18 urte zituen baina asko gustatzen zitzaion bere herria –Barañain– ileapaindegia zeudelako. Eta, badakizu zer? Berak ileapaintzailea izan nahi zuen bere amari bezala orrazteko.

Egun batean bere gurasoek Lizarrara joatea erabaki zuten bere aitak lanbide bat zuelako. Orduan Anek esan zien bere gurasoei:

– Nik ez dut joan nahi, mesedez!

Eta erantzun zion bere amari Aneri:

– Ulertuko duzu, Ane, han seguru ileapaindegia badaudela zuk han lan egiteko.

Bi egun pasa ondoren, Ane Lizarrara joan zen oso triste. Barañaindik ateratzen zirenean agur esaten zion Anek Barañaini. Ailegatu zirenean, Anek oso itsusia zela esan zuen, baina etxea ikusi ondoren oso polita zela esan zuen. Eta Ane, bere etxearen ondoan, ileapaindegi bat zegoela konturatu zen eta esan zion bere amari:

– Ama, geure etxe berriaren ondoan ileapaindegi bat dago.

Gero, buelta bat ematera joan ziren hirurak herritik.

Bigarren egunean Ane ileapaindegira jaitsi zen, laguntzailearen bat falta bazitzaien. Orduan ileapaindegiko zuzendariak horrela esan zion:

– Orain denak gaude eta ez zait falta inor; baina aurrerantzean norbait falta bada zuri deituko dizut.

Azkenean, bere amatxok ideia bat izan zuen eta Aneri ideia kontatu zion:

– Pentsatu dut ona izango dela zuk ileapaindegi bat eraikitzea.

Ane, entzun ondoren, oso pozik geratu zen hola pentsatu zuelako:



– Ze ideia ona izan duzun! Oraintxe bertan Barañaingo ileapaindegiko lagun minari deituko diot nirekin lana egiteko, eta horrela berriro herri berean biziko gara beti-betirako gertu.

Hodeien Guda

Asier Mateo Urdin

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Aritz izeneko mutiko bat, New Yorken bizi zena; hamasei urte zituen eta liburuzale amorratua zen. Bere osabak liburudenda bat zuen, eta Aritz joan ohi zen liburu bat hartzera. Orduak eta orduak igarotzen zituen irakurtzen.

Egun batean liburu luze-luzea hartu zuen osabaren liburudendatik, "Zeruko erregearen arazoa" zuen izena. Liburua bi urte kosta zitzaioan irakurtzea eta liburuaren bukaeran giltza bat agertu zitzaion; hartu, eta lepotik zintzilikatu zuen. Giltza gorde eta gorde hil zen, zaharregia zelako, baina zerura joan zen. Zeruan inoiz baino hobeto zegoen: polita, lasaia, trafikorik gabe... Zeruko erregearen soldaduak hodeiak ziren. Erregea betidanik zintzoa, leiala, behar zen moduan zen. Gainera, nahi zuen eguraldia bidal zezakeen mundura.

Aritz erregearen lagun mina zen, eta erregeak egunero eskatzen zion lepotik zuen giltza:

– Utziko didazu aztertzeke giltza polit hori?

– Ezetz! Ze astuna zaren. Giltza nik irakurri nuen libururik politenetik hartu nuen, eta oroitzapena da.

– Bale, bale!!!

Egunero, erregea jaiki eta hodeiei ze postutan jarri behar ziren – iparraldean, hegoaldean, mendebaldean ala ekialdean – esaten zien. Lau talde zeuden: A, B, C eta D. Orduan erregeak esan zuen:

– A taldea hegoaldera, B taldea iparraldera, C taldea ekialdera eta D taldea mendebaldera.

– Zergatik gu iparraldera?

– Zergatik gu ekialdera?...

Hodeiak haserretzen hasi ziren batzuk leku batean nahi zutelako eta beste batzuk beste batean. Azkenik borrokatzen hasi ziren, izugarritzko borroka, mundu guztian zabaldu zen: Txinan, Frantzian, Espainian, Brasilen... Erregeak ez zekien zer egin, inoiz ez zitzaion hori geratu eta. Erregea, Aritz eta zeruan zeuden guztiak pentsatzen hasi ziren. Bitartean, munduko jende guztiak bere etxeetan zeuden euri zaparrada noiz geldituko ote zen itxaroten. Lurralde batzuk lurperatzen hasi ziren.

Aritz erregearen gaztelutik paseatzen zegoen bitartean, eskua paretan jarri eta ate ezkutu bat aurkitu zuen. Erregeari deitu eta zeruan zeuden tresna guztiekin probatu zuten, baina ez, ezin zen ireki. Gauean, Aritz lo egiten ari zenean, giltza eta atea distira egiten hasi ziren. Aritz distirarekin esnatu egin zen. Giltzak, hegan egiten eta lepotik tiraka, atea zegoen tokira eraman zuen. Aritzek, giltza eta atea distiratzen ikusi zituenean, giltzarekin atea ireki eta hodei bat atera zen:

– Eskerrik asko!

– Zergatik?

– Hemen bost mila urte egon naizelako, janaririk gabe, eta zuk atera nauzulako. Desio bat eskatu nahi baduzu nik beteko dizut, baina desioak izan behar du nik egin ahal dudan zerbait.

– Lehenengo esan nola deitzen zaren.

– Hodeiek ez dugu izenik, baina niri "Kapitain" deitzen zidaten hodeien kapitaina naizelako. Eta zu nola deitzen zara?

– Ni Aritz deitzen naiz.

Orduan gogoratu zen txikitán irakurri zuen liburuaz eta gertatzen zen orain gertatzen ari zena; liburuaren bukaeraz gogoratu eta esan zuen:



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Ez duzu esan hodeien kapitaina zarela?
- Bai, hori esan dut.
- Orduan hodeiak kontrolatuko dituzu?
- Jakina.
- Ba, nire desioa da hodeien borroka gelditzea.
- Bai horixe, zure esanetara!
- Baita, nahi baduzu, erregearen laguntzailea izango zara.
- Konforme!

Azkenean kapitainak hodeiei non jarri behar ziren esan zien eta mundu osoan festak egiten hasi ziren euririk egiten ez zuelako. Erregeak ez zekien mutikoari zer eman eta kapitainari galdetu zion:

- Kapitain, zer oparituko zenioke Aritzi hau egiteagatik?
- Baaaa, ez dakit.
- Orduan ideia bat izan zuen:
- Aritz, zuri gustatuko litzazuke zeruko erregea izatea?
- Ba, bai.
- Aurrerantzean zu zara zeruko erregea.
- Zergatik? Zuk izan behar zenuen, ezta?
- Bai, baina nik ez dut balio lan honetarako, zaharregia naiz eta.
- Ba, bale.

Handik aurrera zeruan lasai eta gerrarik gabe bizi ziren.

Sumendiaren sekretua

Markel Videgáin Barberena

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Orain dela urte asko, Teide sumendiaren ondoko herri batean, Josu izeneko errege ausart eta indartsu bat bizi zen, urre koloreko gaztelu batean. Josu ez zen oso berekoia, herritarrei behar zituzten gauzak ematen zizkielako.

Egun batean bi zientzilarik honela hitz egin zioten erregeari:

- Egun on errege jauna, aspaldiko irudi bitxi bat aurkitu dugu, sumendiaren barru-barruan. Baina joan behar baduzu, kontuz, pizti ikaragarri bat dago. Ni eta nire laguna ez gaitu ikusi, baina ikusi izan bagintu auskalo zer egingo zigun.
- Eta nolakoa da pizti hori? –galdetu zuen erregeak.
- Oso beldurgarria, suzko babak botatzen ditu; eta gainera bere gorputzak guztia erre dezake, al-tzairua izan ezik.
- Hara joango naiz eta piztia akabatuko dut –erantzun zuen Josu erregeak–. Bihar bertan joango naiz sumendira eta zuek, zientzilariak, nirekin etorriko zarete.
- Hurrengo egunean, ondo pentsatu eta gero, lo seko uzteko pote batzuk eraman zituzten, eta al-tzairuzko jantziak, noski.
- Hemen da –esan zuen zientzilari batek.
- Begira, hor dago piztia –esan zuen besteak–. Korri, bota orain poteak, ikusi gaitu eta!
- Piztia lo seko utzi eta gero, itsasora botatzea erabaki zuten. Hara zihoazenean galdetu zuen erregeak:
- Zer egin nahi duzue irudi horrekin?
- Dagoen tokian uztea erabaki dugu – erantzun zuten zientzilariek.



Itsasora iritsi zirenean uretara bota eta errautsa bihurtu zen piztia.
Geroztik pozik bizi ziren nahi zutena lortu zutelako.

Ahalmen magikoak

Miren Josune González Etxenagusia

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

1ER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Hau ez da izango Hami Poterren liburua, baina bai 2 orrialde dituen ipuina...

– Kaixo! Ni Jezdi naiz...

– Et, et, et, Jezdi etorri zaitez hona!

– Barkatu, ama deika ari zait, oraintxe nator!

Jezdik 10 urte ditu, ilea gaztaina-kolorekoa du eta bi belarriak puntadunak. Nahiko argala da, baina oso (argala) izatera iritsi gabe. Jantzera arruntak ditu arrunta delako... beno, oso arrunta ez... ahalmen magikoak ditu. Konturatu zenetik ez dira pasa aste asko, bakarrik bi edo hiru.

Orain ez du ezer egiten ahalmen magikoekin egiten baitu dena; alfer hutsa da eta lehen klaseko azkarrena zela esateak ez du ezer konpontzen. Irakaslea berarekin haserretzen hasia da jada, baita gurasoak ere. Egun guztian jolasten...

– Ken zaitez paretik, iratxo nazkagarria .

– Barkatu Jezdi, baina ez dut bukatu zurekin! –esan dio amak–. Ni naiz iratxo nazkagarri hori.

Ama bronka botatzen ari zaio Jezdiri:

– Horrela jarraitzen baduzu kaleak garbituko dituzu; horrela, horrela, horrela...

Jezdi haserretuta dago amarekin. Betiko plana martxan jarri du: magiarekin gela bildu eta etxeko lanak egin. Azkenean, hainbeste alferfatu zen ez zuela magia egiteko gogorik ere.

Jezdiren amak arrazoiak zuen, orain urteak pasa eta 10:10ean orduetan Jezdi kaleak garbitzera ateratu ohi da negarrez. Haserretuta, bere magia beste ume bati eman dio. Jezdik erabaki du poliki-poliki beste karrera bat hartzea eta bere gustukoa ez zen lana uztea. Orain pelikula asko egin ditu eta oso famatua egin da. Ikasgai bat ikasi du, inoiz ez duena ahaztuko.

Txakurra eta urtxintxa

Oihane Mozo Calvo

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen txakurrak, urtxintxak, erbiak... bizi ziren mendi bat.

Udako egun batean, urtxintxa bere zuloa garbitzen ari zela, hezur bat ikusi eta hartu zuen.

Bat-batean txakurra etorri eta esan zion:

– Aizu, nire hezurra kendu didazu.

– Barkatu, tori zure hezurra.

Orduan urtxintxak bere zuloa garbitzen jarraitu zuen. Garbitzen ari zela urrea aurkitu zuen, eta beti bezala txakurra hurbildu eta esan zion:

– Emaidazu urrea.

– Ez, ez, ez dizut eman behar –esan zion urtxintxak.

– Ba, orduan, bihar bertan borroka egingo dugu.

Hurrengo egunean txakurra bere lagunekin etorri eta inor ez zegoela ikusi zuen. Baina bat-batean



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

milaka urtxintxa, erbi eta katu azaldu ziren. Urtxintxak kokoak botatzen hasi ziren, erbiak azenarioak eta katuak arrainak, esnea eta azkazalekin harramazka. Geroxeago txakurra eta bere lagunak, oso nekatuta zeudenean, lurrean etzan eta esan zuten:

- Utzi, utzi, ezin dugu gehiago. Zuek geldituko zarete urrearekin.
- Eta txakurra bere lagunekin mendi horretatik joan zen betirako.

MEZUA: handiena eta indartsuena ez da beti onena.

Teilatu apurtua

Garazi Iturbide Juanena

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Duela urte asko teilatu bati Hodeitsu deitzen zioten. Hau gorria zen, tomate bat bezalakoa. Herriko teilaturik maitagarriena zen; guztiak ezagutzen zuten, baina beste teilatuek gorrotoa zioten.

Egun batean teilatu guztiak, Hodeitsu izan ezik, bilera bat egin zuten. Guztiak elkartu zirenean teilatu amosak horrela esan zuten:

- Hodeitsuk nazkatuta nauka, herritarrek ez gaituzte garbitzen eta Hodeitsu bai.

– Arrazoa daukazu.

– Tranpa bat prestatu behar diogu –esan zuen teilatu urdinak.

Bi ordu pasa eta ondoren, teilatu horiak ideia bat izan zuen eta guztiak ados zeuden. Teilatu guztiak hodeiei hau eskatu zieten:

- Egun on, hodeiak, bihar gure mundura euria ekartzea nahi dugu.

– Zergatik?

– Tranpa bat nahi dugu teilatu harroputz bati egiteko.

– Bale, bihar euria egingo du.

Hurrengo egunean euria egin zuen. Teilatu guztiak elkartu, eta esan zuen teilatu horiak:

- Orain, guztiak harriak botatzera!

– Bale.

Harriak bota eta bota, Hodeitsu apurtzen hasi zen. Herritar bat konturatu, teilatura igo eta esan zien beste teilatuei:

- Ez bota harri gehiago. Nor hasi da?

– Ni – esan zuen teilatu horiak.

– Zergatik hasi zara?

– Hodeitsurekin beti zaudetelako eta hiltzen bada gurekin egongo zaretelako.

– Bale, ez bota harri gehiago. Hodeitsu konponduko dugu eta guztiei kasu egingo dizuegu.

– Ez dakit, ez dakit.

– Baietz, herritarrei esango diet.

– Bale.

Geroztik herritarrek teilatu guztiak maite zituzten.



Emakume hegalaria

Janire Perales Ullibarri

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin emakume hegalaria bat. Ilea horia zuen, begiak berdeak eta 198 cm. neurtzen zuen. Emakumea Maider deitzen zen eta beti eguzkiarekin batera ateratzen zen hegan egitera eta Gernikan bizi zen. Maider oso ausarta zen eta pelikulak asko gustatzen zitzaizkion.

– Kaixo! Ni Maider naiz, herri honetako alkate berria.

– Agur – esaten zien Maiderrek topatzen zituen guztiei.

Egun batean euria hasi zuen eta lanera joan behar zuen, eta ez zeukan kotxerik ez zelako euriarekin ateratzen. Orduan taxi bati deitu zion eta honela esan zion telefonoz:

– Aizu, etorriko al zara bila?

– Ez, euria dagoenenean ez dugu lanik egiten –erantzun zion taxistak.

Gerxeago euritakoa hartu zuen eta lanera joan zen, baina ez zen busti. Besteak lanera joan eta blai-blai eginda etorri ziren, eta galdetu zuen Maiderrek:

– Non egon zarete hain bustita etortzeko?

– Etxetik hona hainbeste busti gera! –esan zuten aho batez denek.

– Hain urruti bizi zarete?

– Ez, euritakorik gabe etorri gara eta! –esan zuten denek, batek izan ezik.

– Bai, pixka bat, gainera ez dut euritakorik –esan zuen falta zenak.

– Orduan erosi euritako berria.

– Euriarekin apurtu al zaizu? –esan zuten denek.

– Ez, apurtuta neukan nire txakurrak apurtu zidalako –esan zuen Laurak.

– Nik bihar ekarriko dizut bat –esan zuen alkateak.

Eguzkia ez zen ateratzen eta euri asko egiten zuen. Hurrengo egunean euritakoa ekarri zion alkateak.

– Tori Laura, euritako hau –esan zion Maiderrek.

– Eskerrik asko, Maider –eman zizkion eskerrak Laurak.

Egun batean, Laurak, euria egiten zuenean, Maiderrek eman zion euritakoa atera zuen, eta hegan hasi zen. Konturatu gabe. Euritakoa magikoa zen, baina ez zen magikoa jende guztiarekin. Bakarrik magia egiten zuen beste pertsoneri laguntzen zieten jendearekin. Udaletxera ailegatu zenean ez zegoen bustia, eta eguzkia atera zen eta oso pozik zeuden.

Egun horretatik aurrera Gernika osoa oso pozik bizi izan zen eta Udaletxeko bi pertsona haiek hermitarrak zaindu zituzten. Eta denak oso pozik bizi izan ziren bi emakume hegalariekin.

Marian sorgin sekretua

Julen Eseberri Barace

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

1ER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Kaixo, ni Marian naiz eta misio sekretu bat egin behar dut.

Erratz bat lapurtu dute, baina ez erratz sinple bat, urrezko erratz magikoa. Orain joan egin behar dut.

Marian Italiara joan zen pista bila eta Veneziara joan zen.

Gondola hartu eta joan egin zen ikertzera. Marianek bazekien Patapalok egin zuela eta orduan Ma-



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

rianen telefono mobil berriak "trrin trrin" egin zuen. Patapalo maltzurra zen; telefonoa hartu eta esan zuen:

– Marian, tratu bat egin dezakegu. Nik erratza emango dizut, baina zuk niri bi milioi euro eman beharko dizkidazu.

– Inoiz ez, maltzur zikin gogaikarri halakoa!

– Bale, orduan erraztuko dizut dena; orain hiru milioi euro emango dizkidazu, bale? Agur:

Baina Marianek irrati transmisio bat zeukan eta deia lokalizatu zuen. Nafarroara joan egin beharra zeukan, bere herrira, Zubietara.

Zubietan lantegi sekretu bat aurkitu zuen. Barruan sartzea lortu zuen eta han Patapaloren laguntzaileak zeuden eta mutiko bat, 9-10 urtekoa. Orduan Marian sartu zen eta iskanbila sortu egin zen, baina Marian kolpeka hasi zen eta denak lurrean utzi zituen eta mutikoa askatu zuen.

Marianek Patapaloren laguntzaile guztiei galdetu zien, baina ez zuen ezer atera. Orduan Marianek gela sekretu bat aurkitu zuen eta mapa bat ireki, eta han zegoen berak bilatzen zuena. Erratza non zegoen jartzen zuen. Erromara joan behar zuen. Orduan mutikoak esan zion Mariani:

– Zurekin joan al naiteke?

Eta erantzun zion Marianek:

– Ongi da, baina lehenik zure izena esan behar didazu. Ni Marian deitzen naiz.

Orduan joan egin ziren Erromara. Han zeudenean Koliseora joan ziren eta han zeudela zekiten mapan jartzen zuelako, baina han ez zegoen ezer. Orduan Fermin (mutikoa) erori egin zen eta hara non tranpila sekretu bat zegoen, eta pixka bat ireki zuten zer zegoen ikusteko. Barruan Patapalo maltzurra zegoen eta erratza ere. Orduan Marianek eta Ferminek denei bi zaplastako eman eta erratza berreskuratu zuten, eta Patapalo gartzelara eraman dute.

Eta denok gustura bizi izan ziren, Marian misioekin eta Fermintxo bere amarekin.

Izebaren ate magikoa

Adrian Iglesias Martin

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin Adrian izeneko mutiko bat. Adrianek, beti bezala, Aste Santuan bere izebari bisitatxo bat egiten zion. Bere izeba harrizko etxe handi batean bizi zen eta mutikoak askotan *gaztelua* deitzen zuen. Izebaren gaztelua Transilvanian dago, oso beldurtia eta misteriotsua da. Herrikoen uestetan gaztelua madarikatua dago eta egia zioten, gaztelua madarikatuta zegoen.

Aste Santua zela, Adrian bere izebaren gaztelura joan zen. Mutikoa bere izebaren gazteluan zegoela, bere izebak urtero errepikatzen zion gauza bat berriro esan zion: gazteluaren ekialdean dagoen ate ilunetik ez sartzeko. Baina Adrian bere izebak esaten zuen arauaz oso nekatuta zegoen, eta oso kuxkuxeroa zenez ez zion kasurik egin. Gazteluaren ekialdean zegoen atea ireki eta sartu zen. Adrianek kolpe bat sentitu zuen buruan eta minutu pare batez erdi lotan egon zen. Begiak irekitzerakoan, beste mundu batean zegoen. Mundu arraro horretan denak triste zeuden, baina ez zekien zergatik. Ibiltzen ari zela, Adrianek ipotx magiko batekin topo egin zuen eta mutikoak zera esan zion:

– Nor zara zu? –esan zuen Adrianek hamiturik.

– Erregearen morroi bat naiz.

– Zergatik daude denak hain triste?

– Beno, duela zenbait hilabete herensugeen erresuman bizi den deabruak gure printzesa bahitu zuen, eta hori gertatu zenean, gure herrian bizi ziren pertsona guztiak tristetu egin ziren.

– Baina, zergatik?

XV. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



– Deabruak betidanik fantasiako munduaz jabetu nahi zuen. Deabruak 5 hilabete eman zizkion erregeari fantasiako mundua emateko. Hori egiten ez baldin badu bere alaba hil egingo du.

– Norbait saiatu al da printzesa laguntzen?

– Bai, baina oso arriskutsua denez, saiatu diren pertsona guztiak hil egin dira. Gainera herensugeak bere menpean dauzka. Nahi al zenuke printzesa salbatzea?

– Ez nago oso ziur; baina... bai, egin nahi dut.

– Benetan? Ez dakizu ze poza ematen didan. Erregeari abisatuko diot.

Adrian ipotx magikoarekin joan zen erregearengana. Palazioan zeudela, erregearekin topatu ziren eta ipotxak esan zion:

– Errege jauna, hemen da misioa egin nahi duen bat.

– A bai! Ze poza ematen didan, joan nire morroiarekin eta berak armak emango dizkizu.

– Ongi. Adrian, goazen hemendik –esan zuen ipotxak.

Biak ipotxaren etxera ailegatu zirenean, atearen aurrean zaldi hegalaria bat zegoen, eta mutikoa hau esan zuen:

– Zaldi hori niretzat izango da?

– Bai, bere izena Ekaitza da. Horrekin herensugearen erresumara iritsiko zara. Ezker aldean ezpata magiko bat dauka. Deabruari ezpatakada bat bihotzean ematen diozunean, ezpatak hauts urdin batzuk isuriko ditu eta hauek deabrua hilko dute. Baina beno, sartu nire etxean, eta zuku bat edaten dugun bitartean, gauza garrantzitsu bat azalduko dizut.

Adrianek ipotxaren gonbidapena onartu zuen eta biak etxean sartu ziren. Etxearen apal ilun batean mutikoa kutxa zahar bat ikusi zuen. Ipotxak kontu handiz kaxa hartu eta gainean zegoen hauts guztia kendu zuen. Ondoren ipotxak, Adriani begira, hau esan zion:

– Kutxa honen barruan dagoen poltsan nire aitaren botere magikoa dago.

Eta orain nik ematen dizut zuri, herensugeak zeure menpean izateko. Erabili kontu handiz. Goizean hemendik aterako zara herensugearen erresumara. Deabruaren gaztelura ailegatu bezain pronto kontu handiz ibili beharko zara, bertan inoiz ikusi ez dituzun herensugeak daudelako. Hori dela eta, har ezazu mozorro hau. Bertara iristean, jantzi eta ate aurrean dagoen herensugeari sorginen mezulari bat zarela esaiozu.

Goiza ailegatu zen eta Adrian eta Ekaitza herensugearen erresumara abiatu ziren. Bidean zeudela, Adrianek leku gorri-gorri bat ikusi zuen sumendiz beteta eta Ekaitzak hau esan zion:

– Han urrunean ikusten duzuna, herensugearen erresuma da. 5 minutu barru bertan izango gara.

Hegan egiten zeudela, mutikoa eta bere zaldiak hiru herensugerekin topo egin zuten. Herensugeek ipuinetan agertzen zirenek baino beldur handiagoa ematen zuten. Jarraian, hiru munstroek eraso zieten. Borroka latzean aritu ziren, baina Adrian epotxak emandako boterea zuela oroitu zen, eta hau erabiltzea hobereana izango zela erabaki zuen. Poltsa ireki eta hauts batzuk hartu zituen eta hauek herensugeen kontra bota zituen, horrela hiru munstro hauek menderatu zituen. Gaua alde-ara mutikoa eta Ekaitza deabruaren gaztelura iritsi ziren. Deabruaren etxea sumendi baten magalean aurkitzen zen. Gaztelua iluna eta herensugez josita zegoen, epotxak esandako moduan, benetan beldurgarria zen. Jarraian, ipotxak emandako mozorroa jantzi zuen eta bere zaldiarekin aterantz abiatu zen. Atean zegoenean, herensugeak esan zion:

– Nor zara eta zertara zatoz hona –esan zion herensugeak doinu zorrotz batez.

– Sorginen mezularia naiz eta mezu bat dakart zuen nagusiarentzako.

– Ondo da, sartu zaitez. Baina zure zaldiak hemen gelditu beharko du.

Hau esanez Adrian gazteluan sartu zen. Bertan, burezur asko zeuden eta hormetan hainbat marrazki nazkagarri zeuden. Mutikoa ate handi eta beltz batera ailegatu zen, hau ireki eta bertan deabrua aurkitu zuen:

– Sorginek ni bidali naute zuri mezu bat emateko –esan zuen Adrianek doinu ausart batez.



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

– Eta zer mezu da!

Adrianek txistu bat egin eta gela horretan zegoen leihoan Ekaitza agertu zen. Minutu bat galdu gabe mutikoak ezpata hartu eta deabruari esan zion:

– Orain zure hiltzeko garaia heldu zaizu.

Deabruak bere hiruhortzekoa hartu eta Adriani zauri bat egin zion besoan. Mutikoak min keinu bat egin zuen baina zituen indar guztiekin deabruari ezpatakada handi bat eman zion bihotz erdian; une horretan ezpatak zituen hauts magikoak atera ziren eta deabrua hil egin zuen. Baina oraindik ez zen guztia bukatu, printzesa aurkitu behar zuen. Zaldian igo eta herensuge nagusiaren bila joan ziren. Hau aurkitzerakoan, Adrianek ipotxak emandako boterearekin herensugea menderatu zuen:

– Non dago deabruak bahitutako printzesa? Eraman nazazu berarengana.

– Ondo da, eramanez gaitut berarengana.

Adrian, Ekaitza eta herensugearekin joan zen printzesaren bila. Ailegatu zirenean mutikoak printzesa hartu zuen. Adrian, Ekaitza eta printzesa joan behar zirenean, herensugeak hau esan zion:

– Mesedez, aska egin ezazu herensugeen erresuma deabruak eginiko malefiziotik.

– Ondo da, baina zer egin behar dut?

– Deabruaren liburu magikoa erre egin behar duzu sumendi baten labarekin.

Hau esanez, Adrianek herensugeak esandakoa bete zuen eta herensugeen erresuma askatu zuen. Mutikoa eta printzesa Ekaitzaren sorbaldan igo eta hirurak fantasiako mundura joan ziren. Horra ailegatu zenean, herritarrek txaloez hartu zituzten. Ondoren erregearengana hurbildu ziren:

– Zer egin dezaket zu saritzeko? –esan zuen erregeak.

– Ba, nire izebaren gaztelura joan nahiko nuke.

– Ados nago. Eseri nire tronuan eta laster zure izebaren gazteluan izango zara.

Azkenik, Adrian bere izebaren ondora itzuli zen. Hurrengo egunean Adriani etxera itzultzeko garaia iritsi zitzaion:

– Beno, Adrian, zer moduz pasa duzu asteburua? –esan zion bere izebak doinu maitagarri batez.

– Oso ondo, benetan. Ez zait inoiz ahaztuko.

Oiloa eta untxia

Edurne Arana Moriones

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Behin batean txakurra, oiloa, untxia, sagua, elefantea eta lepaluzea lagunak ziren. Txakurra, txikia, polita eta jatorra zen. Oiloa txikia baita eta jatorra. Untxia txakurra baino handiagoa eta politagoa zen. Sagua oso-oso txikia eta pottoloa zen. Elefantea oso-oso handia zen eta tripa handi-handi bat zeukan. Azkenik, lepaluzea oso-oso handia zen, lepoarengatik, eta oso polita.

Egun batean eguzkia joan zen eta animaliak zeuden. Animaliek lo egitera joan behar zuten gaua zelako. Lo egiterakoan, soinu bat entzun zuten, otso bat bezala. Animalia guztiak izutu egin ziren eta guztiak jaitsi ziren. Berriz otsoari oihuka entzun zioten. Animaliak berriz ere izutu egin ziren eta bat-batean otsoa agertu zen, eta animalia guztiak korrika hasi ziren, menditik bueltaka eta bueltaka, eta ez zuten ezer aurkitu. Bat-batean txakurrak kobazulo bat aurkitu zuen, eta esan zion:

– Korri-korri, sartu kobazulo honetan, baina kontuz zapaldu baino lehen, tranpa bat egon daiteke!

Eta animaliak kobazuloan sartu ziren. Kobazuloan, dena beltzez zegoen eta ez zen ezer ikusten.

Bat-batean, soinu bat entzun zuten, hartz bat bezalakoa.



Oiloak buelta eman zuen eta hartzak ikusi zuen, eta esan zuen:

– A, a, a, a, a!!! Gure atzean hartz bat dago, korri-korri!!!

Korrika atera ziren, eta otsoa atean itxaroten ari zitzairen, baina txakurrak esan zuen:

– Korri-korri, jarraitu niri, korri!!

Animaliek txakurrari jarraitu zioten eta otsoak atzetik korrika jarraitzen zien. Txakurrak animaliak amildegi batera eramane zituen, eta txakurrak botatzearena egiteko esan zien, horrela otsoa amildegitik eroriko zela. Otsoa korrika-korrika joan zen eta amildegitik erori zen, eta animaliak pozik jarri ziren eta eguzkia atera zen, eta pozik bizi ziren.

Oihanean abenturak

Asier Martínez Urra

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

1993ko otsailaren 4an gertatutako istorioa. Bazen behin Andiona herrian, ikastetxeko 5. mailakoek kanpaldi bat egin behar genuela. Asko pentsatu ondoren, erabaki genuen Zionako oihanera joatea, 3 egun pasatzera. Gela txiki batean bidaia ikusi eta mapa bat marraztu genuen. Horrela ez ginen galduko. Hartutako gauzen artean: kanpin-denda, mendiko botak, kantinplora, lo zakua, brujula, eta abar...

Ordu batzuk pasa ondoren, Zionako oihanera abiatu ginen. Autobusean geundela, borroka batzuk izan ziren atzealdean, esertzeko.

Irakasleak eta txoferrak haserretu ondoren dena konpondu zen. Errepidetik gindoazela, azeri bat sartu zen autobusaren atzealdean, eta horren ondorioz gurpil bat zulatu zuen. Azeria korrika-korrika desagertu zen. Hots arraro bat entzun ondoren, autobusa gelditu zen, eta konturatu ziren atzeko gurpil bat zulatuta zegoela. Minutu batzuk pasa eta gero, mekanikoei deitu zieten, baina ordu bat kostatu zitzairen etortzea, eta beste ordu bat konponketa egitea. Dena prest zegoenean, denok bidaia ekin genion.

Dena ongi zegoen, baina bat-batean, bidearen erdian, txoferrak gerrikoa jartzeko esan zigun. Guztiok harrituta geratu ginen. Autobusaren aldeetan bi hegale sortu ziren, eta gorantz abiatu zen. Mikel eta Manu negarrez hasi ziren, baina besteok pozaren pozez ari ginen. Autobusa 800 km. orduko bazihoan, eta denak harrituta geratu ginen. Euri zaparrada bota zuen. Ordu batean, 35 litro bota zituen. Euri asko egiten zuenez, bokatak eta edariak autobusaren barruan jan genituen. Sumendi asko azaldu ziren gure aurrean. Laba gure ondo-ondoan zegoen, baina gidariak balazta gehiago zapaldu zuen; sumendietatik urundu ginen. Zionako oihanera iristeko 15 km. falta ziren. Batzuk kartetan jolasten, lo egiten, eta beste batzuk musika entzuten.

Azkenean Zionara iritsi ginen. Ziona oso leku ederra zen. Zuhaitz eta belar asko zeuden, eta mila soinua desberdin entzuten ziren, animalienak.

Motxilak, kanpin-dendak, kantinplorak, eta gauza gehiago deskargatu genituen. Gero buelta bat ematera joan ginen, horko gizon batekin. Asko ibili ondoren, tximuen lekura ailegatu ginen. Tximuek isatsa luzea zuten, burua txikia, begiak handiak, besoak luzeak eta gorputza ilez estalita. Tximuak gure lagunak izan ziren, eta gauza asko erakutsi ziguten. Guk egindako tontakeria asko, beraiek errepikatu zituzten. Niri bururatu zitzaidan harrapaketa jolastea. Beraiei asko gustatu zitzairen eta bukatu genuen beraiekin jolasten. Berandu egin zen, eta gure kanpin-dendetara itzuli behar ginen, baina tximuek platano bana oparitu ziguten. Orain gure lehenengo tokira itzuli ginen. Han, kanpin-dendak prestatu, afaldu eta lotara. Hurrengo egunean elefantearen eta lehoiaren ateraldia zen. Atzoko gizonak "Land Rover" a ekarri zuen, oso estu sartzen ginen. Bero handia egiten zuenez denak blai-blai



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

geunden. Bidaia luzea, neketsua eta aldapatsua izan zen. Ailegatu bezain pronto, janzki burdin babesleak eta kaskoak jarri genituen. Laku handi baten ondoan bizitzen ziren. Pixkanaka-pixkanaka, beraiengana hurbiltzen ari ginen. Lehoiak hatzapar zorrotzak zituen. Batzuk "Land Rover" ean geratu ginen beldurtuta, baina beste batzuk, ausartenak, horien artean Peru hezitzailea izan nahi zuena zen. Soka batekin lehoia jotzen hasi zen. Peruk ez zuen lehoia hezi, oso haserre zegoelako. Segundu batzuk pasa ondoren, lehoiak hozka egin zion. Gizonak, txikia zenean lehoiak hezten bazekien. Orduan soka batekin urruntzea lortu zuen. Elefanteak Peruri lagundu zion, Zionako ospitalera eramatera. Ordu bat pasa eta gero, puntu batzuk eman zizkioten. Asko ikaratu ginen eta etxera itzultzea erabaki genuen.

Azkenean Andionara itzultzen ari ginenean nire motxilan zerbait mugitzen zen. Motxila ireki eta lehengo eguneko tximua zen. Salto bat eman zuen nire besoetara eta hortik aurrera nirekin bizi zen zorientsu.

Nire istorioa

Leyre Garralda Iriarte

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Aspalditxo gertatu zitzaidan istorio bat kontatuko dizuet: garai hartan puxika polit-polit bat nintzen, kolorez beterikoa, eta jabeak, Aitorrek, Txirrista deitzen ninduen, berarentzat txirrista bat bezalakoa nintzelako. Dena goiz haizetsu batean hasi zen, Aitor nirekin jolastera etorri zenean. Oso ondo pasatzen ari ginela, bat-batean eskutik askatu nintzen eta haizeak zerurantz bultzatu ninduen. Momentu horretan beldurturik sentitu nintzen, ez nekien zer egin, haizeak neure kontrola zeukalako. Egun batzuk egon nintzen horrela, noraezean, alde batera eta bestera. Halako batean, soinu arraro bat nabaritu nuen, gero eta hurbilago entzuten zena. Bat-batean, txori erraldoi baten antzeko gauza bat ikusi nuen ziztu bizian niregana zetorrena. Hegazkin bat zen. Ia-ia harrapatu egin ninduen, baina ez zuen lortu. Hain izaturik nengoen ezin nintzela mugitu ere egin, eta azpiko hirira jaistea erabaki nuen. Aberatsen hiria zela nabari zuen: ze nolako etxe-orratzak, eskultura dotoreak... Liluraturik nengoen eta oso ondo pasatuko nuela pentsatu nuen. Lehenengo, udaletxeko plazan zegoen neska batengana joan nintzen. Bera nirekin jolasean hasi zen, eta oso ondo pasatzen ari ginenean bere ama agertu zen eta esan zuen:

– Miren, bota ezazu puxika hori hemendik, ez duzu ikusten hautsez beteta dagoela!

Hori esan eta ostikada bat eman zidan. Ni urruntzen nintzen bitartean neskatxak agur egiten zidan eskuarekin. Baina, hala ere, nik umore onez jarraitzen nuen. Arratsaldean, mutil batengana hurbildu eta berak ere beste ostikada bat eman zidan. Orduan bai, ni triste jarri nintzen. Gainera, kalean denek begi arraroekin begiratzen ninduten eta pentsatzen zuten: "Norena izango da puxika zikin hori? Lotsa emango lidake ni familia horretakoa izateak". Atsekabeturik, hiri hartatik alde egin nuen eta pentsatu nuen puxika zikin bat nintzela eta inork ez ninduela gustuko izango. Egunak pasatu nituen hegaka, ez nekiela nora joan. Horrela nindoala, txori bat agertu zen, oraingoan hegazkina ez zena: arrano bat zen. Bere mokoaz, ni ziztatzen saiatu zen, oraindik gogoratzen dut ze jira-birak egin nituen. Hip-hop egiten ari nintzela nabari zuen baina haiei esker nago hemen istorio hau kontatzen. Azkenean, herritxo bat aurkitu nuen, bigarrena, eta jaitsi egin nintzen. Ez zeukan konparaziorik beste herriarekin. Hau, behartsuz betea zegoen eta gainera etxeak erabat desberdinak ziren. Ume guztiak kalean zebiltzan, eta haietako taldetxo batengana joan nintzen. Bat-batean, korrika ume bat hurbildu, eta bera nirekin jolasten hasi zen. Zenbat denbora neraman ume batekin jolastu gabe! Bi hilabete edo horrela eramango nuen Aitorrekin jolastu nuenetik. Herri horretan ume guztiek asko



maite ninduten. Goizero norbaitekin jolasten nuen, arratsaldero beste norbaitekin, eta gauero ere. Horregatik, zuekin gelditzea erabaki nuen. Behartsuak izatea berdin zait, nirekin asko jolasten duzuelako. Eta argi gelditu zait pertsona bat, herri bat, animalia bat... ez dela fisikoki nolako den ikusita erabakirik hartu behar; izaera nola daukan ikusita baizik.

Zuhaitza buru gainean

Iñigo Urrea Gorospe

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

XX. mendearen bukaeran, bi arratoi bizi ziren eskola bateko soto ilun eta hotzean. Arratoinen izenak Iñaki eta Unai ziren. Arratoi hauek ez ziren beste guztiak bezalakoak, bakoitzak bi begi, sudur bat, aho bat eta gorputz bat zuten, baina buztanetik loturik zeuden. Bi arratoiak beti borroka egiten zeuden, batak alde batera eta besteak bestera joan nahi zuelako eta inoiz ez ziren bat etortzen. Bi arratoiak NASAko astronautak ziren. Iñakik nahiago zuen udaltzaina izan, baina ezin zirenez bereiztu eta NASAn diru gehiago ematen zutenez, NASAn lan egitea erabaki zuten.

Behin, beraien jabeak ea Martitzera joan nahi zuten proposatu zien. Hasieran arriskutsua iruditu zitzairen, baina asko pentsatu ondoren interesgarria izan zitekeela bururatu zitzairen, eta baietz erantzun zioten. Orduan esan zien jaurtiketa eguna hilabete bat barru arratsaldeko bostetan izango zela. Hilabete horretan Iñaki eta Unai oso urduri egon ziren ea noiz iristen zen jaurtiketa eguna itxaroten. Jaurtiketa eguna iritsi zenean oso nekatuta zeuden, gau horretan ez zutelako lorik egin. Lauretan biak jaurtiketa lekura joan ziren eta han denak prest zeuden jaurtiketarako. Oso azkar jantzi zituzten espaziora joateko jantziak eta espaziuntzian sartu ziren. Bost minutu falta zirenean agindu zieten bakoitza bere eserlekuan eseri behar zela eta beraien aginduak bete zituzten.

Ondoren esan zuten bozgorailutik:

– Orain atzerako kontaketa hasiko da: 10, 9, 8, 7, 6, 5, 4, 3, 2, 1, 0...

Orduan izugarritzko hots bat entzun zen, motoreak martxan jarri ziren seinale; gero espaziuntziaren erreaktoreak piztu ziren, bat-batean espaziuntziak lurra utzi zuen eta aireratzen hasi zen, hain urduri zeudenei izerdia zeriela. Ordu batzuk beranduago irratitik esan zieten:

– Oraintxe bertan atmosfera zeharkatu duzue, ordu gutxi barru ilargiaren ondotik igaroko zarete, eta orduan, ilargiaren ondoan zaudetenean 149.000.000 km. faltako zaizkizue gutxi gora behera.

Hamar egun geroago irratitik mezu pozgarri hau iritsi zitzairen:

– Orain 50 km.-tara zaudete, seinalea ematen dizuegunean ezkerreko botoi laranja zapaldu behar duzue.

30 segundo geroago sirena hotsa entzun zutenean botoi laranja zapaldu zuten, eta zapaldu bezain laster espaziuntziak bira eman, eta lurreratzeko prestatu zen, baina orduan zerbaitek huts egin zuen, motoreak itzali ziren eta espaziuntzia Martitzeko lur gorri eta aretsuan etzanda gelditu zen. Bi arratoiniek ez zuten minik hartu, espaziora irteteko jantzia eta kaskoa jantzirik zeuzkaten eta. Zailtasun batzuk izan zituzten espaziuntzitik ateratzeko atea lurraren kontra zegoelako, eta ezin zuten ireki. Azkenean, denbora luzean pentsatzen egon ondoren, Unairi ideia bat bururatu zitzaion: motozerra hartu zuen eta beraien atera ahal izateko moduko zulo bat ireki zuen. Ateratzerakoan ikusi zuten espaziuntziarekin ia 30 mm-tako eraikuntza bat zapaldu zutela. Eraikuntzak eskuin aldean botoi bat zuen. Unaiak botoia sakatu eta ezker aldean zuen hoditxo batetik likido gorri bat ateratzen hasi zen; Unai edatera joan zen, baina 20 mm bakarrik falta zitzaizkionean likido gorria edan ahal izateko, bere gerrira iristen zen gizontxo bat agertu zen beraien aurrean eta galdetu zien:

– Nortzuk zarete zuek? Nondik zatozte? Zertara etorri zarete?



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

– Gu Iñaki eta Unai gara, lurra planetatik gatoz eta Martitz esploratzera gatoz.
– Baina ezin duzue Martitz esploratu, gu hemen bizi gara, eta gainera, nori bururatzen zaio kanpamendu militar baten erdian espaziuntzia horrela, botata, uztea? Eskerrak ni sarjentua naizela, bestela nire soldaduek hilko zintuzketen. Orain joan zaitezte azkar hango txabolara eta itxaron iezadazue, nire lana bukatzean zuekin joango naiz.

Bi ordu geroago berriz agertu zen gizontxoak bi jantzi arrarorekin eta esan zien:

– Korril Jantzi itzazue traje hauek nire etxeraino joateko eta han kendu ahal izango dituzue.

Bere etxera ailegatu zirenean traje bitxi horiek kendu zituzten eta gizontxoak jaki arraro batzuk eman zizkien baina beraiek gorde egin zituzten ez zeukaten goserik eta. Hurrengo egunean militarrek espaziuntzia altxatzen lagundu zieten, motorra erregaiez bete zuten, espaziuntzian sartu ziren, abiatzeko palankari eragin zioten eta lurlean bezala, soinu gogor bat entzun zuten eta espaziuntzia aireratzen hasi zen. 10 egun geroago ikusi zuten lurretik oso hurbil zeudela eta botoi laranja zapaldu zuten, orduan espaziuntziak bira eman zuen eta lurreratze prestatu zen. Lurreratu zirenean, hori milaka arratoi zeuden beraiei itxaroten. Espaziuntzitik atera zirenean txaloka hasi ziren denak; haien aurrean auto dotore bat prestatu zieten beraien etxeraino eramateko.

Etxean ez zeukatenez ezer jateko martitzarrek eman zieten janariaren zati bat jan zuten eta gorde egin zuten. Hurrengo goizean, NASARA joan zirenean, milioi mordo eman zieten Martitzera joaten ziren lehenengo izaki bizidunak izateagatik. Berriz etxera bueltatzerakoan konturatu ziren haien buruetan koloretako bikorrak zituztela.

Medikuarengana joan zirenean galdetu zien medikuak:

– Zer gertatzen zaizue?

– Bikor arraro batzuk atera zaizkigu buruan, doktore.

– Badakizue zergatik atera zaizkizuen bikorrak?

– Ez, ez dakigu.

– Zerbait arraroa ukitu duzue?

– Ez.

– Eta zerbait arraroa jan duzue?.

– Hori bai, martitzarrek eman ziguten janaria jan genuen, oraindik gelditzen da pixka bat.

– Ba ekar iezadazue janari hori eta laborategian aztertuko dut, etorri bi egun barru.

Iñaki eta Unai oso urduri zeuden bikorrak gero eta handiagoak ziren eta.

Hurrengo goizean gosaltzen ari ziren bitartean, eztanda txiki batzuk entzun ziren eta bat-batean bien buruak odolez bete ziren. Oso pozik jarri ziren bikorrak ez zituztela ikusterakoan, baina orduan, landare bat agertu zen bakoitzaren buruan eta hain azkar hazten zen ze minutu batzuk geroago landare bat izan ordez zuhaitz bat zen. Lotsa ematen zenez kalera horrela ateratzeak medikuari deitu zioten beraien etxera joan zedin. Medikua beraien etxera iritsi zenean ez zen baxterez harritu azterketaren emaitzak bazekizkien eta.

– Asko aztertu ondoren jakin dut zuhaitz horren hostoek edozein gaixotasun sendatzeko gai direla eta zuhaitza moztean beste handiago bat jaiotzen dela. Zuen buruetan 20 egunetan zehar jaiotako dira zuhaitzak eta gero janariaren eragina bukatuko da, 20 egun hauetan zuhaitzak zuen burutik moztuko ditugu, eta gero zuhaitzak landatu eta hostoak moztuko dizkiegu, hemendik aurrera ez da gaixotasunik egongo.

Unai eta Iñaki oso pozik gelditu ziren gizakiei asko lagundu zitelako eta handik aurrera ez zen gaixotasun gehiagorik izan.



Mikel futbolaria

Iñigo Jorajuria Calvo

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

“Ze txarra zaren!” esaten zioten Mikeli bere “lagunek” futbolean jolasten ari zirenean; Mikel orduan neskekin jolastera joaten zen, bere gelakideek irainka jarraitzen ziotelarik.

Barkatu, ez dakizue nor naizen; ni, Mikelen zapata pinpilina nauzue eta, hau guztia, ia egunero entzuten nuen. Hobeto azalduko dizuet.

Mikelek handitan, futbolaria izan nahi zuen, eta nik, futbolean aritu baino lehen neskekin jolastera joateko esaten nion arren, ez zidan kasurik egiten.

Egun batean, dutxatzen ari nintzela, ideia bat bururatu zitzaidan problema hori konpontzeko; ni futboleko bota bilakatzea zen hori. A ze poza nirea, Mikel futbolari on bat izango zen!

Minutu batzuk beranduago iritsi zen nire dezepzioa; nola bihur nintekeen futboleko bota zapata pinpilin bat baldin banintzen?

Horretan pentsatzen ari nintzela, Mikel negarrez sartu zen etxean. Niregana jo zuen, ez baitzegoen inor etxean, eta bainatzeari utzi behar izan nion.

– Zer gertatzen zaizu? –galdetu nion.

– Ni-nire lagunek jo na-naute –ihardetsi zidan negarrez bere ohera bazihoalarik. Momentu horretan agertu zen Mikelen ama, eta negarrez ari zela ikusita, berarengana jo egin zuen. Amak bazekien zer gertatu zitzaion, eta, ezer esan gabe, lasaitu zuen poliki-poliki. Nik nire ideian pentsatzen jarraitu nuen.

Gaua iritsi zen eta, lo nengoela, amets bat izan nuen. Bertan, zapata pinpilin bat agertzen zen, neu nintzen! Ametsean, oso urruti bizi zen azti batengana nindoan. Bere gaztelua lautada batean zegoen, labirintu batez inguratua; hori gutxi balitz, dragoi bat zeukan zaindari. Nire aurretik kamiseta bat zihuan labirintuan sartu nintzenean. Bat-batean, dragoia agertu zen eta kamisetak dragoiari burua estali zion ikusmena kenduz. Dragoiak, bere burua defendatu nahian, ahoa ireki eta kamiseta hiltzeko itxi behar zuenean, nire indar guztiak atera eta ostiko bat eman nion. Dragoia, min harturik, lurrera erori zen kamisetaren burua zapalduz; hori izan zen kamisetaren azkeneko momentua. Oso triste geratu nintzen lagun bat gutxiago neukalako; baina nik jarraitu behar nuenez, dragoiari ostiko bat eman nion berriro ere. Han hil egin nuen dragoia.

Labirintuan galdu ondoren, gazteluaren parera iritsi nintzen. Ez zegoen zaindaririk eta bertan sartu nintzen. Aztiaren aurrean makurtu eta nire problema azaldu ondoren, desio bat eskatzeko esan zidan. Ez nuen asko pentsatu eta, besterik gabe, Mikel futbolari on bat izatea eskatu nion.

Momentu horretan esnatu nintzen. Oso goiz zen, eta ametsean ikusi nuena gogoratuz, aztiaren bila joan behar nuela pentsatu nuen. Ez nion inori esan ametsean ikusitakoa, denek sorpresa bat izan zezaten.

Hurrengo egunean hasi nintzen gaztelua bilatzen. Lautada batean egon behar zuen; horregatik, iparralderantz jo nuen. Ez zitzaidan gauza interesgarririk gertatu labirintuaren sarreraraino. Han, ametsean bezala, kamisetarekin elkartu nintzen. Bere atzetik nindoala, dragoia agertu zen eta kamisetarekin batera hil egin zen. Gazteluan sartu, desioa eskatu eta etxera bueltatu nintzen oso pozik.

Etxekoak agurtu ondoren, oherantz jo nuen oso nekatua nengoelako. Oherako bidean, ispilu bat zegoen eta han begiratu nintzen nahi gabe. Takoak nituen behealdean, Nike marka jartzen zuen nire alboetan. Futboleko bota nintzen! Poz harekin joan nintzen ohera.

Lo kuluxka eder bat egin ondoren, Mikelek bere oinean jarri ninduen nire aldaketaz konturatu gabe.

Eskolara joan ginen eta bere “lagunek” barre egin zioten bota haiek ezertarako erosi zituela esanez.



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Errekreaoa heldu zen, eta ohi bezala, Mikel futbolean jolastera joan zen. Ze ongi jolasten zuen egun hartan; gainera, ni bere laguntzailea nintzen! Denak txunditurik utzi genituen.

Gero, barkamena eskatzera joan ziren denak han futbolari on baten laguna izateko.

Orain, urte batzuk beranduago, Bartzelonan jolasten du, eta beti bezala, nire laguntzaz.

Gorka eta “koxkuek”

Haizea Bergara Baleztena

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Arratsalde eguzkitsu bat zen eta Amaiur Ikastolako ikasleak patioan zeuden lasai lasai. Seigarren mailako mutikoak futbolean jolasten ari ziren eta neskak, berriz, soka-saltoan. Baina mutikoen artean bazegoen bat beti bazterturik gelditzen zena ez baitzitzaien futbola batere gustatzen. Bere izena Gorka Telletxea zen, ilea eguzkia bezain horia zuen, begiak udazkenean zuhaitzei eroririkako hosto marroien berdinak eta sudurra eta ahoa txiki-txikiak. Gorka oso argala zen eta beste mutilek hori zela eta maiz zirikatzen zuten.

Udaberrian seigarren mailakoak kanpaldira joan ziren. Bertan antolatutako Herri Kiroletan parte hartzeko, zenbait froga egin arazi zizkieten eta gainera pisua eta altuera neurtu behar zieten. Hori zela eta, Gorkaren lagunak hautatuak izango zirela uste zuten, oso onak eta indartsuak zirela uste zutelako. Iritsi zen hautatuen zerrenda irakurtzeko momentua. Hautatuen artean Gorka zegoen, eta harrituta geratu zen hori entzutean.

– Hau ezinezkoa da! Nola izan naiteke ni hautatua? Ni zein herri kiroletan izan naiteke ona? –pentsatzen zuen.

Hurrengo egunean, taldeen osaketa egiten hasi ziren. Taldeak egitean bere gelakiderik ez zegoela konturatu zen Gorka. Bera “koxkuak” biltzeko arduraduna zen eta oso pozik zegoen. Bazkaltzeko ordua iristean, bere lagunak ea hautaturik zeuden galdetu zien eta hauek erantzun zioten:

– Ba...ez, Gorka ez, ez gaituzte hautatu.

– Eta...zer dela eta?

– Ba...arduradunari galdetu genion eta lodiegi geundela esan zigun.

– Eta zuk, zein froga egin behar duzu?

– Nik, “koxku” bilketa. Beno, utzi behar zaituztet, entsaiatu behar dut eta. Agur:

Egunak eta egunak igaro zituzten entsaiuak egiten eta azkenean heldu zen eguna. Gorka oso urduririk zegoen eta bere lagunak Koxkue, kox-kox!!!!... oihukatzen zioten eta Gorka ziztu bizian hasten zen koxkuek biltzen.

Azkenean, lagunuen animuei esker Gorkaren taldeak irabazi zuen eta bere lagun guztiek besoetan hartu eta “hip-hip koxkuak, hip-hip koxkuak!!!” oihukatuz plazari buelta eman zioten. Etxera itzultzean, Gorka oso pozik eta irrifartsu zegoen, eta lagunek inguraturik. Gau hartan amets egin zuen, eta koxkuei eskerrak ematen zizkien.

Handik aurrera lagunak “Koxku” izenez deitzen zuten eta berarekin jolastu ere.



Oki okila eta Dunbo elefantea

Xabier Iriarte Martínez de Lezea

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Euskal Herriko baso handi batean, Oki eta Dunbo bizi ziren, beste animalia askoren artean. Oki, okila zen, hau da, zuhaitzetako enborrak zulatzen zituen. Eta Dunbo, elefantea, nahiko potoloa zegoen. Biak lagun minak ziren.

Baina, hala ere, basoko animalia guztiak iseka egiten zieten:

- Dunbo potolo! –esaten zion batek. Beste batek, berriz:
- Oki mokoluz eta itsusi!

Goizeko lehen orduan matematikako klasea egokitzen zitzairen. Egun horretan, aurreneko azterketen emaitzen eguna zen. Honela deitu zien irakasleak:

- Oki! Dunbo! Oso gaizki! Beste “zero” atera duzue atzoko azterketan! Horrela ez duzue inoiz ikasiko, zuen gurasoei deituko diet, eta oraintxe bertan gainera!

Etixerako bidean, Oki eta Dunbo notei buruz komentarioak eginez joan ziren:

- Ze zoritxarra! Zero atera dugun bakarrak gara! –esan zuen Okik.
- Eta gainera, zure gurasoak bezala, zigortu egiten naute aste bat telebista ikusi gabe! –jarraitu zuen Dunbok.

- Eta hau gutxi baldin bada ere, gurasoen errieta ere badugu! Zerbait egin behar dugu.

Eta orduan, Oki etxera iristean, bere amak haserre bizian:

- Oki! Zure irakasleak deitu dit atzoko azterketan zero atera duzula esanez! Horrela ezin duzu jarraitu!

Eta bitartean, ez pentsa Dunbo amaren errietatik libratu zenik, ez! Baina hala ere, honen amak, ez dio errieta oihukatuz egin. Izan ere, horrenbeste errieta egin dionez, eztarriko minez geratzen da eta ez da hain gogorra izaten.

Arratsaldeko bostetan, Oki eta Dunbo zelaixoan elkartu ziren, beti bezala.

Baina gaur, ez dira saskibaloian edo harrapaketan aritu. Izan ere, Okik oso albiste garrantzitsua zeukan Dunbori kontatzeko:

- Aizu, Dunbo, enteratu al zara irratian emandako albisteaz?

- Ez, ez naiz enteratu. Zertaz zihuan?

– Ba, entzun: Hego Ameriketako Brasilen, guda oso indartsu bat egin dute: Afrikakoak, beraien hegazkinak hartuz, Brasileran joan dira gaur goizean, eta munizio, bonba eta tiro asko bota dituzte. Batean, denbora luzea pentsatzen egon eta gero, Okiri bonbila piztu zaio, hau da, ideia itzela baino zaila bururatu zitzaion:

- Aizu, zer iruditzen zaizu bertara joaten bagara laguntzera? Zuk, zeure tronpa luzearekin ur pila bat botaz, sua itzaliko duzu. Eta nik, berriz, oso moko gogorra eta zorrotza daukadanez, bertako gaizkileen tiroak saihestuz eta ehundaka mokokada emanez, gaizkileak hil eta Brasil salbatuko dugu!

Eta orduan Dunbok:

- Baina ez dakit bizirik aterako garen bertatik, eta gainera, Brasil oso urruti dago!

- Hori nire kontua da! Gainera, ez al zara gogoratzen nire tresna magikoez? “Super-Turboarekin” ziztu bizian ailegatuko gara eta Ezkutuekin ederki saihestuko ditut! –esan zuen Okik.

- Egia da! Goazen berehala Brasileran! Gaizkile guztiak akabatuko ditugu!

Okik, bere buruarekin baiezkota eman zuen, eta ondoren hauxe esan zuen:

- Igo zaiten nire gainera, nik eramango zaitut eta!

Bidaia hasteko, zerurantz igo, eta Espainiako Euskal Herria, Kantauria eta beste hainbat komunitate zeharkatu ondoren, Ozeano Atlantikoan itsasoratu ziren biak.



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Paisaia ederrak ikusten ziren, benetan. Denbora luzea Ozeanoan egon ondoren, irla erraldoi bat ikusten zen eta Amerika zela konturatu zen Dunbo:

– Aupa, aupa! Ameriketara gaude! – oihukatu zuen behin eta berriro Dunbok.

Oki ere izugarri pozik zegoen. Izan ere, bietako inor ez zen Ameriketara egon gaur arte. Bat-batean, Brasil eta Argentinaren arteko mugan, ke izugarri ikusi zuten.

– Aizu, Dunbo, ikusten al duzu ke hori?

– Bai! Agian... esan zenuen guda indartsu hura da! –esan zuen Dunbok.

– Seguru asko baietz. Goazen!

Asko hurbiltzen ari zirenean, su izugarria eta sekulako kea ikusten zen. Ia ezin zen amasa hartu ere egin.

– Oki, baina nola hilko ditugu gaiztoak? Hori buruz ez zenidan ezertxo ere esan!

– Hori utzi nire eskuetan! Nire moko zorrotza, Super amadura eta metraileta erabiliz, den-denak hilko ditugu, eta ez dugu ezta bat ere bizirik utziko, ez!

Zuk, aldiz, tronpa erabiliz, sua itzaltzen saiatu beharko duzu. Eta aldi berean, nire metraileta handia erabiliz, punteria onarekin, noski, ahal ditugun gaizkileak akabatu behar dituzu. Ados zaude esandako guztiarekin?

– Bai, ados nago!

– Ongi, orduan gure plana ezin da inolaz ere pikutara joan. Zeren gu, SuperDunbo eta Oki gara! Hau guztia esanez beherantz jaitsi ziren laguntzeko prest. Baina zuek uste al duzue plan hau ongi aterako denik?

Bertara iristean, Oki ia hiltzen da, izan ere, tiro bat bere ondotik igaro da. Baina hurrengoan serio jokatu du: gaizkile batek bota zuen tiroa amadurarekin saihestu, eta hogei mokokada emanda, hil du. Horrela jarraitu du Okik.

Bitartean, Dunbok, ur pila bat hartuz, sua itzali, eta aldi berean, punteria oso onarekin hamar gaizkile hil ditu. Bi ordu barru, gaizkile guzti-guztiak lurtean zeuden, hilda. Brasildarrak, berriz, on onik zeuden, eta pozik.

Gudaren laguntzagatik eskertuta, Dunbo Okiren gainean igo eta poz-pez Espainiarantz abiatu ziren. Beraien basora iristean, zarata handia, baina alaia entzuten zen Dunboren lorategian. Izan ere, den-denak ohartu ziren biek Brasil salbatu zutela! Beno ba, bertan zeuden: lagun guztiak, hain gurasoak, Oki eta Dunboren gurasoak, nola ez eta batez ere, irakasle jauna. Lorategira iristean, den-denek zoriendu zituzten, eta irakasleak hauxe esan zuen:

“Oki eta Dunbori, munduaren salbatzaile eta basoko ausartenak direnez, hamar bat jarriko diet, be-raien portaeragatik. Benetan eta bihotz bihotzez zoriontzen zaituztet”.

Hemendik aurrera, ikastea zein garrantzitsua den ikusi zuten, eta hamar ateratzen zuten beti. Beno, ba honela amaitzen da istorio hau.

Zerraila apurtuaren misterioa

Edurne Mugarza Strobl

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Kaixo! Ni Edurme naiz eta nire amonaren etxean gertatu zen misterioa kontatuko dizuet.

Egun normal bat zen, beste guztiak bezalakoa. Beti bezala, nire amona (Elisabeth Mayer) gaueko hamarretan etxera bueltatu zen. Nire amona, ikasle batzuei alokatzen zizkien pisu txikiez osaturiko etxe handi batean bizi zen.

XV. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Kontua da, jardinera zihoanean, atearen zerraila apurtuta ikusi zuela eta denei abisatu ziela. Ikasle denak, iziturik, beraien etxeetatik jaitsi egin ziren eta nire amonari galdetu egin zioten ea zer gertatu zen. Amonak, dena kontatu egin zien, baina inork ez zekien nor izan ote zen.

Bat-batean, argia joan zen etxe osoan eta une hura askoz beldurgarriagoa egin zen. Ikasle bakoitza bere etxera igo eta lintermekin bueltatu zen. Denak oso beldurtuta zeuden, bertan lapur bat zegoela uste baitzuten. Orduan, etxe osoa miatu zuten, goitik behera, zirrikiturik utzi gabe.

Nire amonak esan zuen:

– Badago oraindik toki bat begiratu ez duguna, atikoa. Badakit ez duzuela inoiz entzun hemen atiko bat dagoenik, beti sekretuan mantendu dudalako, baina badago bat; beraz, han egon beharko du zerraila apurtu duenak.

Atikora igo ziren, beldurrez, eta gainera gehienei linternen pila gastatu egin zitzairen; beraz, ez zeukaten apenas argirik.

Atikoan, bazter guztiak miatzen hasi ziren, baina han ez zegoen inoren arrastorik.

Amonak, ikasleak ez izutzeko, esan zuen:

– Beno, argi dago hemen ez dagoela inor; beraz, gau honetan lasai lo egin dezakegu eta bihar nire etxean elkartuko gara, misterioa argitzeko.

Esan eta egin, ikasleak beren etxera joan ziren, baita amona ere, baina hori bai, denak oso iziturik. Hurrengo egunean, amonak atearen aurrean ohar bat aurkitu zuen, baina ez zion garrantzi handirik eman, egunkaria ekartzen duenak egunero ohar bat uzten diolako ate aurrean, eta berarena izango zela uste zuen.

Ikasleekin elkartu zenean, egin zuten lehenengo gauza poliziarri deitzea izan zen.

Poliziak ailegatu zirenean, jardineko aterantz abiatu ziren eta nire amonak gertatutako guztia kontatu zien. Poliziak, ateko zerraila aztertzen hasi ziren, eta bertan hatz baten aztama aurkitu zuten. Aztama identifikatu eta, hara! Bizilagunaren aztama zela konturatu ziren.

Amona oso haserre jarri zen, bere bizilagunarekin oso ongi konpontzen zelako eta ez zuelako uste gai izango zenik horrelako zerbait egiteko.

Zuzen, denak bizilagunaren etxera abiatu ziren. Bizilaguna, hainbeste jende bere etxean ikustean, harritu egin zen, eta zer gertatzen zen galdetu zuen. Amonak dena kontatu zion. Orduan, bizilagunak, dena ikasle baten errua zela: Alison Meyer.

Ondoren, bizilagunari barkamena eskatu ondoren berari errua botatzeagatik, amona etxearen alean aurkitutako oharrak akordatu zen, eta ikasle eta poliziekin batera bere etxerantz abiatu zen oharra irakurtzera. Oharrak honela zioen:

Mayer andere agurgarria:

Zure etxean bizi den ikasleetako bat naiz: Alison Meyer.

Jardinera joateko pasa behar den atearen zerraila apurtuta ikustean ez harritzeko bidaltzen dizut ohar hau. Hau da gertatu zena:

Dakizunez, gaur oporretara noa, baina, maleta etxean utzi dut eta giltzak barruan ahaztu ditut, eta ordu hauetan ez dago inor etxean. Beraz, bizilagunarengana jo dut eta honek ideia bat izan du. Bere jardina gurearengandik bereizten duen hesiaren gainetik salto egin eta jardineko atearen zirrikitua apurtu ondoren, barrura sartu da eta barrutik atea ireki egin dit. Eskerrak eman, maleta hartu eta ohar idatzi ondoren, banoa eta hurrengo astean bueltatuko naiz. Espero dut zu ez haserretzea.

Adeitasunez,

Alison Meyer

P.S.: zerraila berria erosteko dirua bueltatzean emango dizut.



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Oharra irakurri ondoren, amona eta beste guztiak aho zabalik gelditu ziren. Poliziak joan egin ziren, nahiko haserre, kasua ez zelako beraiek uste bezain larria. Ikasleak, oraindik aho zabalik, beraien e-txeetara abiatu ziren.

Imajinatuko duzue nire amonak Alison Meyer delako hori etxetik bota egin zuen, hori bai, dirua kobratu ondoren, eta ondoren, bizilagunari etxeko giltzak utzi zizkion, bada ezpada ere.

Pailazoaren tronpeta

María Lampérez Zubia

I. SARIA: DBH I. maila

IER PREMIO: ESO 1er. curso

Egun eguzkitsu bat zen Beriaingo herrian. Festak ziren eta arratsalde horretan pailazoak zeuden. E-txeko txiki-txikiek zirkura joan nahi zuten eta beraien gurasoak pozik joaten ziren zirkurako txartelak erostera.

Berriaren oso ondo igarotzen ari ziren festak; Txoriotxo familiako haurraren izena Manuel zen. Manuel mutiko azkarra, trebea eta langilea zen. Ille horia eta begi urdinak zituen. Brometan aritzea ere asko gustatzen zitzaion eta horregatik **pailazo** deitzen zioten, baina baita ere **musikari** tronpeta jole bikaina zelako. Manuelek betidanik gogo handi bat zeukan: zirkoko pailazoa izan nahi zuen.

Udako egun batean... begira zer gertatu zitzaion. Etxera abiatu zenean, bere amak sorpresatxo bat zeukan berarentzat, logelako mahai gainean "PRICE" zirkurako bi txartel utzi zizkion bere lagun minarekin joateko. Jon zen Manuelen lagun onenetarikoa. Manuelek telefonoa hartu zuen eta segituan Joni deitu zion galdezka ea atsegingo litzaiokeen berarekin zirkura joatea, bere amak bi sarrera utzi zizkiolako bere logelako mahai gainean. Jonak, bere amari baimena eskatu ondoren, baietz esan zion eta adostasun batera iritsi eta gero, biak zirkura zuzendu ziren. Zirkura sartu zirenean, jende artean eseri ziren. Funtzioa pailazo talde batekin hasi zen. Pailazo agintariak, jende artean zeuden bi mutiko laguntzaile bezala hartu zituen. Bi mutiko hauek Manuel eta Jon ziren. Pailazoek ea tronpeta jotzen zekiten galdetu zieten eta Manuelek baietz erantzun zien, baina bere tronpeta etxean zegoela esan zien. Orduan pailazoak berak zeukan tronpeta zahar bat eskuratu zion eta honela esan zion:

– Tronpetaz abesti eder bat jotzeko eta jendea txundituta uzteko gai baldin bazara, lanpostu bat emango dizut zirku honetan urte baterako.

Manuelek tronpeta zaharra bere esku artean hartu zuen eta ezpainera eramanez "**Hara non dira**" Iparragirrenen abesti sentimentala jotzen hasi zen. Bukatu zuenean denak zutituta txalotzen hasi ziren, oso une hunkigarria sortu zen zirkuko aretoan. Pailazo arduradunak orduan esan zion:

– Mutiko, gaur izan da niretzat egun zoragarria. Txundituta utzi nazu tronpeta doinu horrekin, eta hain ongi jotzen baduzu, nik lanpostua emango dizut gure "PRICE" zirkuan.

Manuel oso pozik zegoen, ametsa zela iruditzen zitzaion, eta benetan horrela zen. Manuel, Jon bere lagunarekin zirkura joan zen. Han, aurreko aukietan eseri zen Jonen ondoan, eta nekatuta zegoenez, loak hartu zuen. Ia-ia funtzioa bukatuta zegoenean, Jonak astindu bat eman zion esanez:

– Manuel, mesedez, esna zaitetz!!

Eta Manuel orduan konturatu zen dena amets bat izan zela.

Eta hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Barañaingo Plazan.

Manuelen tronpeta

hoberena da,

berarekin alaitzen



dizkigu gure herriko kaleak
luju!!!!!!!

Zuhaitz baten bizitza

Iratxe Barón Beaumont

1. SARIA: DBH I. maila

1ER PREMIO: ESO 1er. curso

Ni zuhaitz bat naiz, hain zuzen, sagarrondo bat. Herrixka nahiko handi baten kanpoaldean bizi naiz eta nire ondoan bidexka bat dago; bertan jendeak paseatu egin ohi du. Ni nagoen lekutik paisaia oso politak ikusten dira eta larrez eta mendiz inguratutik nago, baita ere ibai bat nire ondotik igarotzen da.

Udan, ume guztiak ibaira joaten dira bainatzera, eta gero nire itzalpean geratzen dira. Batzuk, nire sagar gorri-gorriak jaten dituzte edo nire adarretara igo eta bertan hitz egiten hasten dira. Baina badaude ere beti futbolean aritzen direnak.

Egun batean, euria ari zuela eta hotza egiten zuela, eskabadora deituriko makinak etorri ziren eta baita 10 bat gizon sendo. Bat-batean, bidexka zegoen lekuan, zuloak egiten hasi ziren eta larreetan ere. Nik ez nuen ideiarik ere bertan gertatzen ari zenari buruz, baina aste bat pasata konturatu nintzen zeren kartel bat jarri zuten esanez autopista bat eginen zutela. Uda iristean, ez zen haur bat ere azaltzen zeren orain hauts handia zegoen oraindik obretan zeudelako eta orain ibaia nahiko zikina zegoen. Ni oso goibel nagoen eta oso bakarik sentitzen nintzen.

Iraila aldera, autopista bukatu zuten eta kotxe mordoak igarotzen zen. Arratsalde batean, 3 gizon hurbildu ziren niregana. Halako batean, motoserra bat hartu zuten eta bere zarata beldurgarriarekin nire enbor lodia mozten hasi ziren. 5 minutu pasata lurrera erori nintzen 2 zatitan. Gero denak joan egin ziren eta ni bertan utzi ninduten hilik. Ni moztearen arrazoia, nagoen lekuan ez nintzela batera ondo, eta ez dakit zergatik (kotxeekin pasatzen ziren jendea kexatu egiten omen zelako).

Herrixka hartako umeak ohartu omen ziren niri gertatutakoaz, eta berehala niregana etorri ziren. Nire sagar bateko haziak hartu zituzten, eta landatzen hasi ziren. Denbora luze bat igaro ondoren, ni berriro hazten hasi nintzen, baina oraingoan beste bi sagarrondorekin batera. Poz-pozik nagoen, zeren berriz ere hazten ari nintzen. A! Ahaztuta nuela, haziak ez zituzten ni nagoen lekuan jarri, baizik eta beste leku askoz ere politagoan eta baita ibaitxo garden baten ondoan.

Guzti hau gertatu zenetik 13 urte igaro dira, eta hasieran esan dudana bezala, orain nagoen lekuan paisaia eta larre oso politak ikusten dira. Baita ere mendi ugari daude eta ibaitxo bat nire ondoan. Lehen bezala, ume guztiak ibaira joaten dira, itzalpean jarri, sagar gorriak jaten dituzte, zuhaitzetara igo, eta futbolean aritzen dira. Egun osoa igarotzen dut nire beste bi sagarrondoekin hizketan eta txisteak kontatzen. Oso zoriontsua naiz eta espero dut horrela jarraitzea berriro hil arte.

Ea noizbait topo egiten dugun!!!

Zakuzaharrak atzetik

Maidar Berrio Goñi

2. SARIA: DBH I. maila

2º PREMIO: ESO 1er. curso

Lesakako ihauteriak ziren eta denak mozorrotuta zeuden. Oihan 14 urteko herritar bat txatxoz mozorrotuta herriko plazan agertu zen bere arreba Maialenekin. Hau lau urte gazteagoa zen eta



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

egun tristeak pasatzen ari zen, bere lagunik onena beste leku batera joan zelako bizitzera gurasoak banandu ondoren. Maialen ile horia zen, eta begi urdinak zituen. Oihanez, berriz, ilea beltza eta begiak berdeak (zituen). Ez zen oso altua baina korrika egitea gustatzen zitzaion.

Herriko plazan jende mordoa zegoen. Ez bakarrik herritarrek, beste herrietatik etorritako jendea ere. Baziren urme batzuk, ikastola batetik etorritakoak, eta haiekin hizketan hasi ziren:

– Nola duzu izena? –galdetu zion mutiko batek Oihani.

– Oihan, eta zuk? –erantzun berak.

– Igor. Burlatik etorri gara, hemengo ihauteriak ikustera. Begira, hango hura nire arreba da eta 13 urte ditu. Zenbat dituzu zuk?

– Hamalau.

– Nik hamaika.

– Begira, hau nire arreba Maialen da, 10 urte ditu. Nahi baduzu gelditu jolasten.

– Ongi –esan zuen Maialenek.

Oihanez, Igorren arreba bilatzen zuen banku batetik. Oso ederra eta liraina iruditu zitzaion. Ilehoria eta luzea, kizkur batzuekin, begi berde argiak, eta bere altuera izango zuen. Ez zuen inondik ikusten. Bat-batean zakuzaharrak hurbildu zitzaizkion eta joka hasi. Oihan korrika egiten hasi zen, zuhaitz baten atzean gelditu arte. Orduan neska errubia bat ikusi zuen. Igorren arreba zen. Gogoko zuezez, despistatu, eta zakuzaharrek ikusi zuten. Berriz korrika egiten, ibai ertzeraino. Harri batean eseri zen atsedean hartzeko. Ibai ondoan iturri natural bat zegoen eta amasestuka ailegatu zenez ia ia iturri osoa edan zuen. Edaten ari zela, gauza arraro bat ikusi zuen haritz batera igotzen. Zuhaitzera begira gelditu zen, baina ez zuen ezer ikusten. Kanal aldera joan zen, dantzatzeko ordua zelako. Beti bezala gero etxera joan, bokata hartu eta plazan lagunekin afaldu zuen. Gaua iritsi zen eta dena ilun zegoen. Maialeni galdetu zion:

– Zer moduz Igorrekin?

– Oso ondo, oso jatorra da, baina pena ematen dit zeren ihauteriak bukatutakoan joango da.

– Orduan ondo, e? Guapoa iruditzen zaizu?

– Oihan! –erantzun zion haserretuta –Eta zuri bere arreba, ezta?

Oihan gorritu egin zen eta Maialen etxean barrezka sartu zen.

– Maialen! Igo nire logelara! –oihukatu zuen Oihanez.

– Zer nahi duzu?

– Badakizu! Gaur ibai ondoan, zuhaitzera igotzen, gauza arraro bat ikusi dut.

– A bai?? – erantzun zuen burla egiten...

– Egia da! Bihar etorri nirekin! –haserretu zen.

– Barkatu, baina ez dut nahi tontakeria horietan denbora pasatzea.

– Ez zara ausartzen? –zirikatu zuen Oihanez.

– Ongi da... bihar zurekin joango naiz.

Biak ohera sartu ziren, Oihan oso azkar gelditu zen lo, korrikaldiengatik. Maialeni asko kostatu zitzaion, kezkatuta zegoen. Hurrengo goizean, gosaldia eta ibaiertzera joateko prestatu ziren. Motxilan linterna, kantineplora, ogitartekoa eta txubaskeroa sartu zuten. Igor eta bere arrebarekin topo egin zuten plazan.

– Kaixo, zer moduz? –galdetu zuen Maialenek.

– Ongi, baina bagoaz –erantzun Igorrek penarekin.

– Ze pena, nahi baduzu egun batetan gure etxera etor zaitezke –esan zuen Oihanez.

– Ados, baina beste egun batean. Agur!! –bukatu zuen Igorrek.

Oihani, neska ilehoria lotsatia eta isila iruditu zitzaion, jada ez zitzaion gustatzen. Ibai ondora ailegatu ziren. Arreta handiz begiratzen zioten haritzetara eta pagoei. Oihanez bereziki haritz bati, horretan ikusi baitzuen gauza arraroa igotzen. Bat-batean Maialenen aurrean zerbait erori zen. Ikaratuta, oi-



ka hasi zen. Oihan hurbildu, eta besotan hartu zuen. Animalia zirudien baina ez zuen inoiz ikusi. Maialen, ikusterakoan, oroitu zen liburu batean ikusi zuela. Zaurituta zegoen eta iturriko ura eman zioten. Gero, Oihanen jertsean bildu eta etxera eraman zuten. Maialen liburu hura bilatzen aritu zen, baina aurkitu ezin. Eskolako liburutegira joan eta hango liburuxka batean ikusi zuten muxarra bat zela. Muxarrak ia beti lo daude, erdaraz "lirón" deitzen dira.

Egun oso zoriontsuak pasatzen ari ziren eta Aste Santua ailegatzeko ari zen; honekin batera, Maialenen urtebetetzea. Honek lgorri deitu zion ea nahi zuen etorri, eta baietz erantzun. Denbora aunitz egon ziren hizketan.

Apirilaren 8a zen, Maialenen urtebetetzea. Oso gaizki jaiki zen eta lehenengo Oihan esnatzera joan zen.

– Altxatu loti hori!!

– Zeeeer? –galdetu zuen erdi lotan –Ah, bai! Zure urtebetetzea! Zorionak!

– Eskerrik asko, baina gaur ere egiten du hilabete bat muxarra aurkitu genuela eta zerbait oparitu egin beharko diogu...

– Bai, arrazoi duzu! Baina gauza bat, ez dakit zergatik esaten duten beti lotan daudela zeren gau osoan zirikatzen aritu zait eta ez dut ia lorik egin.

Biak barrezka hasi ziren. Eguerdia aldera lgor etorri zen eta arratsaldean familiar eta lagun ugari etorri ziren. Oso ongi pasa zuten, baina badakizue zein izan zen hoberen pasa zuena? Bai, bai, muxarra. Zorionak asmatu duzuenontzat; jende guztiak besotan hartu, muxukatu, laztandu... Baina lasai, Maialenek ere oso ondo pasa zuen eta opari aunitz oparitu zizkioten.

Hoa pikutara!

Itxaso Zenotz Pascual

2. SARIA: DBH I. maila

2º PREMIO: ESO 1er. curso

Ez zaie nire kolorea gustatzen, ez dute nire janzkera gogoko eta uko egiten diete nire pentsamenduei. Gaizki tratatzen naute, ni baino gehiago direla uste baitute.

Hona etorri nintzen bizimodu hobea baten bila eta hau da aurkitu dudana. Askok edukazio falta dute. Edukazioa izanen da, edota arrazismoa!

Nik Matias dut izena eta 14 urte ditut. Pasa den urtean, nire familiarekin etorri nintzen Madrilerara. Etortzean, laster konturatu nintzen hau ez zela guretzat aproposena. Nire gurasoek, denbora pasatzean, besteek onartuko gintuztela zioten; eta hori dela eta gelditzea erabaki zuten. Urte bat pasatu da jadanik eta berdin pentsatzen segitzen dut.

Nire etxea ez da oso eroso, baina daukagunarekin konformatu beharra dugu. Lehen esan dudana bezala, nire familiarekin etorri nintzen: aita, ama eta nire hiru arrebeekin. Etxean ez dut telebistarik, ez ordenagailurik, eta joko gutxi. Horregatik eta anaiarik ez dudalako, asko aspertu egiten naiz.

Gure bizilekuak toki gutxi du eta zaharra da. Maltzur itxura zuen gizon bati erosi genion.

Batzutan, gurasoek uzten didatenean, Marruekoetik nire lagun hoberenari eskutitz bat bidaltzen diot. Faltan botatzen dut gehienetan eta nire sentimenduak eskutitzetan adierazten dizkiot.

Hona etorritakoan ere, eskolaz aldatu behar izan nintzen. Nire etxea baino gehiago gogoko dut ikastola. Oso handia eta polita da. Nire irakaslea emakume atsegin bat da. Ikasketetan oso ondo noala esaten dit beti eta horrek alaitu egiten nau. Hala ere ez naiz oso eroso sentitzen, nire ikaskide batzuk zaborra bezala tratatzen bainaute. Han ere, nire lagun mina dut, Mikel izenekoa. Bera izan zen nire laguna izateko prest zegoen lehenengoa. Hala ere, batzutan berak ere uko egiten dit, beskeen aurrean gaizki ez geratzeko. Baina beno, zer egin behar diogu...



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Aita, egun osoan lan eta lan aritzen da, horregatik 5 minutu baino ez dut ikusten, etxera bazkaltzera etortzen denean. Segituan, lanera itzuli behar du. Gauez, oso berandu dator; eta ni ordurako lotan nago. Oso nekatuta ibiltzen da. Horrelakoa da etorkin baten bizitza.

Ezin dut gehiago jasan. Nire bizitza ez da normala. Nire kolorearengatik baztertzen naute. Ulertu beharra dute gu ez garela hona nahi dugulako etortzen, dirua eta lanpostu on batengatik baizik, eta nik nahiko nituzkeela hemengo kulturak jakin eta nireak besteei erakutsi. Ez da hain zaila.

Hau idazten dut soilik nire sentimenduak atera nahian. Mundu honetan gustura bizi nahiko nuke eta aski da; hemendik aurrera ados ez dagoenari esango diot:

"HOA PIKUTARA"

Futbola ikaragarri gustatzen zait

Itziar Pérez de Heredia Mutuberría

I. SARIA: DBH 2. maila

IER PREMIO: ESO 2º curso

Nire izena Miren da eta 10 urte ditut. Asteasukoa naiz eta asko gustatzen zait futbola. Egunero aritzen naiz futbol entrenamenduetan eta oso ongi pasatzen dut. Gehien gustatzen zaidan futbol taldea Osasuna da, niretzat ikaragarri ona delako. Nire gurasoei, futbola ez zaie batere gustatzen, eta askotan nirekin haserretzen dira futbolaz hitz egiten dudalako. Nire gurasoek Mikel eta Ainara dute izena.

Gau batean bronka izugarri handia bota zidaten gurasoek eta asko haserretu ziren nirekin ezergatik. Ni baita asko haserretu nintzen eta diru pixka bat hartuz etxetik joan nintzen, inor konturatu baino lehen. Lehenengo taxi bat hartu eta Donostiaraino joan nintzen. Gero Donostian Iruñeako autobus-txartel bat erosi nuen eta hara joan nintzen. Han nengoenean, kabina batetik Iruñeko lagun baten etxera deitu nuen (Nerea, nire Iruñeko laguna da eta udako kanpaldi batean ezagutu nuen. Nerea oso neska jatorra da. Begi urdinak ditu, eta ilea berriz, beltz-beltza. Oso lagun onak egin ginen). Nerea etxean zegoen eta ea bere etxera joan ahal nuen galdetu nionean berak baietz erantzun zidan; orduan bere etxerantz abiatu nintzen. Beraren etxera ailegatu nintzenean, asko poztu zen ni ikustean. Baina nolatan nengoen ni han galdetu zidanean dena kontatu nion. Uda zenez, goizero joaten ginen Nerearen eskolako patiora futboleko aritzera. Faltan botatzen nuen gehiena Asteasun jokatzen nituen partiduetan ziren. Baina badakizuenez, Iruñeko festak udan dira, uztailean 6an, hain zuzen: "San Ferminak". Ni uztailean 10ean joan nintzen eta oso giro ederra eta atsegina zegoen han. Leku batetik bestera genbiltzan egun haietan. Goiz batean zezenetara joan ginen. Gero txokolatea edatera eta azkenik barraketara. Han, nire gurasoekin topatu nintzen. Eskerrak ez nindutela ikusi. Korrika abiatu ginen Mirenen etxerantz. "San Ferminak" pasatu egin ziren eta gu biak futboleko jolasten ari ginen. Bat-batean gizon bat ailegatu zen, eta gu jokatzen geunden bitartean, berak, apunteak hartzen zituen. Halako batean, guregana hurbildu zen, eta hauxe galdetu zigun:

– Kaixo, neskak, oso ondo jokatzen duzue futboleko.

– Kaixo, gizon, zer nahi zenuen? –esan zion Nereak.

– Futbol talderen batean jokatzen duzue? –galdetu zigun.

– Ez, baina asko gustatzen zaigu –jarraitu nuen nik.

– Galdera bat egin nahi nizueke. Futbol talderen batean jolastu nahi zenukete?

– Bai, bai. Noski baietz –erantzun zuen Nereak oso pozik.

– Irailean hasiko zarete entrenatzen, Burlatan. Eta Osasunako neska txikien futbol taldean jokatuko duzue. Agur eta iraila arte.

– Bai, agur – agurtu nuen.



Orain Osasunako neska txikien futbol taldean jokatzen ari gara eta oso pozik gaude. Nik, handiagoa naizenean, Superligako futbol talde batean jokatu nahi dut.

Amonaren hankasartzeak

Maia Ansa Díez de Ure

1. SARIA: DBH 2. maila

IER PREMIO: ESO 2º curso

Oso familia xelebrea dudala esaten didatenei arrazoa ematen diet. Ni, 13 urte dituen neska bat naiz eta amonaren etxera asteburu pasa joateko ohitura dugunez... beno, ez dudanez irakurlea aspertu nahi, harira joango naiz.

Lehen esan dudan bezala, amonaren herrian geunden, eta asteburu horretan piperrak eta tomatia enbotatzeko geratuak ginen. Egun osoa jo-ta-ke ibili ginen piperrak erretzen... Bitartean, ni nire lehengusuak zaintzen aritu nintzen eta denek geneukan zeozer egiteko. Han, ez da inoiz lana falta. 8ak aldera, amona afaria prestatzen hasi zen eta patata-tortila egin zuen beste gauza batzuen barne. Denak gosez amorraturik geundenez, amonak deitu eta ziztu bizian denak mahaian geunden jateko prest. Bakoitza gurera geunden eta kriston zurrumurrua zegoen. Haurrak oihuka, amona altxa ta eseri: nahi duzu hau?? Nahi duzu bestea??? Horrek oilategi bat zirudien, baina nire amak esan zuenak hori dena isildu zuen:

– Zer da hau? Zer egiten du “tuerka” honek nire tortilan?

– Lasai-lasai garbia dagoela. Esaten nuen ba nik zeozer falta zela...-esaten du nire amonak bat-batean.

Eta noski, denak barrez lehertzen hasi ginen. Horretaz komentarioak egiten hasi ginen eta lehen zegoen zurrumurru hori txikia zen oraingoan sortu zenaren aldean. Baina nire aitonaren komentario batek berriz ere zurrumurrua gelditu zuen:

– Kontuz!!!! Txirringola falta dela!!!!

Eta berriz denak barrez. Nik honi katxondeoa deitzen diot ta ez beste gauza batzuei... Gau horretan oso ondo lo egin nuen eta ez da gutxirako ere. Jejejeje...

Beno, geroztik ez da edozein etortzen gurekin afaltzera, batez ere bere janari hori dagoenean. Hala ere, ez dago gaizki noizean behin barre batzuk egiteko.

Jirafa lepo motz

Sonia González Lebrero

2. SARIA: DBH 2. maila

2º PREMIO: ESO 2º curso

Afrikako oihan batean animalia asko zeuden eta han oso pozik bizitzen ziren. Horieta batek, jirafak hain zuzen, izugarritzko arazoa zeukan lepoa motza zuelako eta horregatik ezin zituelako egin hainbat gauza. Triste samar bizi zen ia lagunik ez zuelako. Baina oihaneko suge jator bat, oso sentikorra zena, beti jirafaren ondoan zegoen animatzen eta besteei kasu ez egiteko esanez. Sugeak Txinlu izena zuen eta oso kolore ederrak zituen bere gorputzean. Txinlu eta jirafa Lido oso lagunak ziren. Goizero jirafa guztiak han zeuden, ibai bazterrean, hara gosaltzera joaten baitziren, eta Lidok berarekin gosalduta nahian galdetzen zien:

– Zuekin gosaltze dezaket, mesedez?



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Besteek Lido hondakin bat izango balitz bezala begiratzen zioten eta egunero horrela erantzuten zioten:

– Ez! Leporik gabe ez duzu ezertarako balio. Gainera zuhaitzetatik janaria hartzera ez zara ailegatzeko eta laguntza behar duzu. Guk ez dizugu lagundu behar; lotsa ematen digu zurekin egoteak. Joan zaitetz hemendik, kakati hutsa zara eta!

Honekin batera gure jirafa Lido urruntzen joaten zen oihanean zehar gero eta negar gehiago egiten, bere eguneroko txokora ailegatu arte. Han bere lagun Txinluk esaten zion:

– Ez kezkatu, egunen batean izugarizko sorpresa eramango duzu, lepoa luzatuko zaizulako. Gezurra dela pentsa arren, kasu egidazu, benetan.

Lido gero eta alaiago zegoen bere lagunaren hitzak entzuterakoan. Orduan Txinlu zuhaitzera igo, eta gosaltzen lagundu zion. Lidok honela erantzun zion:

– Hori errealtatea egingo balitz, oso pozik jarriko nintzateke, baina oso zaila da egia bihurtzea. Eskerririk asko laguntzeagatik Txinlu. Zu bihotz onekoa lagun bat zara, zerbaitetan laguntza nahi baldin baduzu nik emango dizut egin badezaket behintzat.

Hau esaterakoan Txinluri malko batzuk atera zitzaizkion.

Gosaldu ondoren zerbaitetara jolastu ziren biak.

Egun horretan ea nork egiten zuen korrika gehiago jolasten ziren. Batzuetan Lidok irabazten zuen eta besteetan Txinluk. Biek oso ondo pasatzen zuten hara eta hona ibiltzen. Beste jirafak zer egiten ari ziren ikustera joan ziren, hauek erleak harrapatzen jolasten ari ziren. Lidori hori ez zitzaion baxterez gustatu, berak ezin baitzuen jolastu. Animalia guztiak, Lido ikusterakoan, barrez lehertzen ziren lepoa motza ikusita. Txinluri esker, ondo zegoen oihan horretan. Jateko orduan Lidok esan zuen:

– Txinlu, zure lagunekin joan behar al duzu edo jaten lagunduko al didazu?

Txinluk, momentu bat pentsatu eta gero, laguntzea hobereana izango zela esan zion bere buruari. Eta txisteak kontatuta eta barrez leherturik biak jaten hasi ziren. Zuhaitz baten adarretara igo ziren, lo seko geratu eta han bi ordu pasa zituzten. Bat-batean, Lido, ametsetan zegoela, adarretatik sugearen gainera erori zen eta hortikan biak lurrera bota ziren. Txinluk esan zuen:

– Baina zer da hau? Zer gertatu da? A ze mina!

– Amets bat izan dut eta zure gainean erori naiz nahi gabe –segidan Lidok.

Txinluk aurpegi arraroz begiratzen zion baina pixkanaka dena ulertzen zuen, lehen erdi lotan baitzegoen. Orduantxe biak barrezka hasi ziren dena ulertutakoan.

Isiltzerakoan ahots batzuk entzun zituzten, alde batera begiratu eta jirafa guztiak pilotarekin jolasten ari ziren buruarekin emanez. Honek ezin zuen horretara jolastu. Arratsaldean buelta bat ematera joan ziren ibaiaren ertzetik eta bat-batean oihu bat entzun zen:

– Lagundu, mesedez!

Hauek biak, korrika, ahotsa zetorren bidetik joan ziren. Hartz txiki bat, adar batean zintzilik, ibaira erortzeko zorian zegoen. Gainontzeko jirafek ikusi, eta esan zuten:

– Gu horrengatik ez gara ibaira bota behar: Hor konpon Marianton!

Lidori izugarizko pena eman zion eta hartz txikiarengana joan zen. Lepoa luzatu eta honi heldu egin zion ibaiaren ertzean utziz. Berak oso arraro sentitzen zuen lepoa: luzatu egin zitzaion! Jirafa guztiak eta animaliak egun horretatik aurrera berarekin jolasten egoten ziren.



Gaupasaren ondorengo biharamuna

Ekhi Senar Rekondo

2. SARIA: DBH 2. maila

2º PREMIO: ESO 2º curso

Abel dut izena eta Beruete izeneko herri ttiki batean bizi naiz. Herri ttikia izanen da, baina ederra da era berean. Bisitari eta kanpotar ugari hurbiltzen dire Beruetera, bai herriko ostatuan bazkaltzera, bai herrian dauden sagordegieta, eta baita herria eta paisaia polit eta eder hauek ikusi eta gozatzera. Guri kanpotarrak ez zaizkigu batere gustatzen. Ez pertsona gaiztoak direlako, baina bai frontoiak eta gure kale zabalak beraienak direla uste dutelako; eta askotan haien erruz kirolik egin gabe geratu gara, haiei begira. Bestalde, Beruete herri lasaia da eta gure artean giro ona dago. Berueten abere asko daude, azinda asko, behiak, ardiak, ahuntzak, zaldiak, behorrak, oiloak... Beruete ere nekazal herria da.

Lehen esan dizuedan bezala, nik Abel dut izena eta 15 urte ditut. Leitzeko institutura joaten naiz ikastera, Beruete Enekoitz eta Olatzekin batera. 30 ikasle gara klasean eta herri guzietakoak daude: Leitzekoak, Goizuetakoak, Lekunberrikoak, Aresokoak, Gorritikoak, Uitzikoak, Berueteakoak...

Baina, nire "koadrila" edo lagun taldea Berueten dago. Astez, ordu asko pasten ditugu frontoian, esku pilotan, futboleak, etab. Nik adibidez, neguan, asko laguntzen diet nire osaba eta attonari, ahal duen neurrian beti ere. Eta horri, ikasketak eta telebista pixka bat ikustea gehitzen badizkiozu, aste gogor eta ez aspertzeko modukoa ateratzen da. Asteburuetan, Iruñean edo beste herrietan bizi direnak eta etxea Berueten dutenak, etortzen dire eta "koadrila" politta osatzen dugu.

Asteburu gehienetan, goizez arrantza edo ehiza egiten dugu. "Koadrila"ko zaharrenak (17-14 urte) noizbehinka bakarrik etortzen dire, baina besteok gutxitan huts egiten dugu. Arratsaldean denok frontoira joaten gara: pilotan aritzera, futboleak jolastera, hitz egitera eta umekeriak egitera.

Larunbat gauetan, hamarrak inguruan, soziedadean afaltzen dugu. Gero, afaldu ondoren, mus saioaldi luzea egiten dugu. Apari ederrak izaten dire, sagardoarekin lagunduta. Hamabiak aldera, pestetara edo dantzaldietara joaten gara, Alain, Mikel, Igor eta Idoiaren kotxeetan. Lehengoan, adibidez, Bordatxon (Doneztebe) egondu ginan. Horrela pasten dugu neguko hotza. Eskola akabatzean, eta uda iristearrekin poz eta alaitasun gehiago egoten da Berueten, haur ugari izaten baita kaleetan. Helduak, berriz, nire osaba eta beste herritarrek, marmarrean egoten dire, belarrak direla eta ez direla. Egia da nekazarien eta abeltzainen bizia gogorra dela batzuetan.

Jolas eta alai pastu da hilabete t' erdi eta jadanik abuztuaren 22a da. Leitzeko pestak dire eta hamarretan aparta dugu Leitzen, 50 pertsona inguruk, "Legarra" ostatuan. Kotxez abiatu gara, lau kotxeetan. 16 goaz Berueteetik, gau izugarria pasatzeko prest. Niretzat, pertsonalki, Berueteakoak kenduta noski, Leitzekoak dire pestarik handienak eta ederrenak, gaupasa polit bat egiteko. Apaldu ondoren pesta girora hurbildu gara eta bestea imajinatu eginen duzue. Goizeko 7'30ak dire eta Beruetera itzultzeko garaia iritsi zaigu, pesta mundiala pastu ondoren. Ni, Alainez eramanda itzuliko naiz Beruetera; Mikel Arangoa, Olatz eta Xabirekin batera.

Amak, beti arduratsu, esan ohi dit pestetan primeran pasatzeko, baina etxera itzultzekoan Alaine edo beste gidariei mozkorra pasatu arte ez ateratzeko, istripu larriak baitaude gaur egun. Baina nik ez diot kasu zipitzik eginen, ze jadanik logurea sartu zait eta denek bezala etxera joan nahi dut. Ni, betiko legez, lokartu egin naiz, bidean gindoazela. Lo sakona eta ederra egin dut. Esnatutakoan, ospitalean nengoan, gurasoen eta medikuen alboan, ohean etzanda. Ez nintzen ezertaz gogoratzen, komatik atera berria bainintzen eta kriston kolpea hartu bainuen buruan.

Gurasoek, berri gogor eta latz baten berri eman zidaten: kotxean zeuden besteak hil egin ziren, istripu larri hortan, eta ni 15 egun koman egon naiz.





Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Versos escritos”**

Kanpaldia

Paula Urzainki Rekari

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Doinua: Santa Ageda.

Urdaibaira joan ginenean
taldeka banatu ginen
oilarrak, untxiak ta zaldiak
han ikusi genituen

Gernika eta gero Bermeo
ibili ginen han eta hemen
ta gero jan genuen bokata
barra erdia genuen

Mendiaren tontorrean

Mikel Urriza Paskual

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Doinua: Aitorren hizkuntz zaharra.

Mendiaren tontorrean
badira loreak
eta bere gainean
badaude erleak,
ikusten dira ardiak
ta noski artzainak
eta baita txakurrak
badira haundiak



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Zure klasera etorkin bat etorri da

Garazi Ibiricu Abedaño

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Doinua: Maritxu nora zoaz?

Klasera etorri zaigu
etorkin berri bat
adiskide ona da
ta eman dugu ontzat

Adiskide guztiok
harrituta daude
Txinakoa omen dela
jakin baitute

Guztiok berarekin
jolastu nahi dugu
berak irri batekin
eskertu nahi digu

Gaur ondo pasa dugu
neskatxa harekin
guretzat ez da izango
inolaz etorkin

Asteburua aterpetxe batean igaro duzue klase osoak, zer berri?

Haizea Bergara Baleztena

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Doinua: Aita semeak.

Asteburua oso-osorik
denak aterpe etxean
gela guztia ibili gara
oso pozik jolasean
Bazegoen han futbol zelaia
beti gu hor inguruan
baina gu egun euritsuetan
denok genbiltzan kartetan

Gure logela txiki-txikiak
eta hango armiarma
irakasle guztiok zioten
a ze sustoa ai ama
Hasieran bai zeuden garbiak
hori egindako lana
baina itzultzeko egunean
ai nolako panorama



Bertsoak

Iñigo Urria Gorospe

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Doinua: Orbelak airez aire.

Aprobatzen badugu
Alaitz lkastolan
guk ere ikasiko
dugu institutuan

Gure eskola zaharretik
joan egingo gara
lehenengo hezkuntzatik
hurrengo hezkuntzara

Zazpik ta laurdenetan
esnatuko gara
ordu bietan berriz
joango gara etxera

Institutuko frogak
zailagoak dira
horregatik gehiago
ikasi beharko da

Bertsoak

Iñigo Xalbador Lakuntza

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Doinua: Kantatzera nijoa.

Bertsotan aritzen naiz
denbora librean
baina anaia honekin
ez nago pakean
adarra jotzen dit bai
hor bete-betean
bertso hau pentsatzeko
bi ordu astean

Bertsoak ikasteko
ondo dago udan
nik behintzat egiten det
hortxe Zuberuan
lehiaketa zegoela
oroitu ninduan
ea zortzarekin
irabazten dudan



XV Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Asteburua aterpetxe batean igaro duzue klase osoak, zer berri?

Itxaso Zenotz Pascual

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Doinua: Xarmangarria zera.

Abiatu ginela
harat hamaiketan
urduri nengoela
jarri izerditan
izerdia kentzeko
hasi ginen kantan
oso gaizki pasatu
nuen momentu hartan

Autobusean Julen
hasi zen botaka
berari esan genion
baduzu usain kaka
Julenek guri bota
zigula zapata
monitoreak hari
eman zion lata

Jolastu, amestu eta
baita ere eskalatu
han ez genuen ezta
atsedenik hartu
kanpaldi honetan ni
ez naizela aspertu
hainbeste gauza eginda
asko dut gozatu



Aurkibidea / Índice Ipuinak / Cuentos

SARIA PREMIO	EGILEA AUTOR	ORR. PÁG.
3. maila LH/3° E.P.		
1. saria Aztia eta ispilu magikoa	Ainara Albizu Vilas	5
1. saria Untxi miresgarria	Ane Lore Iriarte Cemboráin	5
2. saria Kolorerik gabeko dragoia	Antziñe Argandoña López	6
2. saria Ane ileapaintzailea da	Patricia Lizaso Villar	6
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Hodeien Guda	Asier Mateo Urdin	7
1. saria Sumendiaren sekretua	Markel Videgáin Barberena	8
1. saria Ahalmen magikoak	Miren Josune González Etxenagusia	9
2. saria Txakurra eta urtxintxa	Oihane Mozo Calvo	9
2. saria Teilatu apurtua	Garazi Iturbide Juanena	10
2. saria Emakume hegalaria	Janire Perales Ullibarri	11
5. maila LH/5° E.P.		
1. saria Marian sorgin sekretua	Julen Eseberri Barace	11
1. saria Izebaren ate magikoa	Adrian Iglesias Martín	12
2. saria Oiloa eta untxia	Eduarne Arana Moriones	14
2. saria Oihanean abenturak	Asier Martínez Urra	15
6. maila LH/6° E.P.		
1. saria Nire istorioa	Leyre Garralda Iriarte	16
1. saria Zuhaitz buru gainean	Iñigo Urra Gorospe	17
1. saria Mikel futbolaria	Iñigo Jorajuria Calvo	19
2. saria Gorka eta "koxkuek"	Haizea Bergara Baleztena	20
2. saria Oki okila eta Dunbo elefantea	Xabier Iriarte Martínez de Lezea	21
2. saria Zerraila apurtuaren misterioa	Eduarne Mugarza Strobl	22
1. DBH/I° E.S.O.		
1. saria Pallazoaren tronpeta	María Lampérez Zubía	24
1. saria Zuhaitz baten bizitza	Iratxe Barón Beaumont	25
2. saria Zakuzaharrak atzetik	Maidor Berrio Goñi	25
2. saria Hoa pikutara!	Itxaso Zenotz Pascual	27
2° DBH/2° E.S.O.		
1. saria Futbola ikaragarri gustatzen zait	Itziar Pérez de Heredia Mutuberria	28
1. saria Amonaren hankasartzeak	Maia Ansa Díez de Ure	29
2. saria Jirafa lepo motz	Sonia González Lebrero	29
2. saria Gaupasaren ondorengo biharamuna	Ekhi Senar Rekondo	31

Bertso paperak / Versos escritos

SARIA PREMIO	EGILEA AUTOR	ORR. PÁG.
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Kanpaldia	Paula Urzainki Rekari	33
1. saria Mendiaren tontorrean	Mikel Urriaza Paskual	33
5. maila LH/5° E.P.		
1. saria Zure klasera etorkin bat etorri da	Garazi Ibiricu Abedaño	34
6. maila LH/6° E.P.		
1. saria Asteburua aterpetxe batean igaro duzue klase osoak, zer berri?	Haizea Bergara Baleztena	34
1. saria Bertsoak	Iñigo Urra Gorospe	35
1. saria Bertsoak	Iñigo Xalbador Lakuntza	35
1° DBH/I° E.S.O.		
1. saria Asteburua aterpetxe batean igaro duzue klase osoak, zer berri?	Itxaso Zenotz Pascual	36

